- 1. taldea: Markel Laskurain, “Bergarako auzoak”; Ainara Rubio, “Oporrak”
- 2. taldea: 1. saria: Beñat Loidi: San Martzialak”; 2. saria: Yasmin Chohan: “Oporrak”
- 3. taldea: Urko Egaña, “Egonean lan”.

Koldo Mitxelena Literatur Saria (25. 2014. Donostia)

BDB fitxa: <http://bdb.bertsozale.eus/web/aldizkakoa/view/2078-koldo-mitxelena-literatur-saria-25.-2014.-donostia>

Maiztasuna: Urtero

Kokapena: Gipuzkoa

Hedadura: Donostia

Antolatzailea: Donostiako Euskararen Udal Patronatua

Saridunak:

- C mailan:
 - Eguzki Aginagalde Huitzi: “Fuertebenturako hondartzak”
 - June Azpiazu Nosellas: “Nire oporrak”
- E mailan:
 - Unai Azpiroz Iztueta: “Amets gaiztoa”
- F mailan:
 - Jokin de Miguel Salaberria: “Egiak agerian”

Lazkao-Txiki Bertsopaper Lehiaketa (23. 2014. Ordizia)

BDB fitxa: <http://bdb.bertsozale.eus/web/aldizkakoa/view/2050-lazkao-txiki-bertso-paper-lehiaketa-23.-2014.-ordizia>

Maiztasuna: Urtero

Kokapena: Gipuzkoa

Hedadura: Euskal Herria

Antolatzailea: Argi Berri Elkarte

Saridunak:

- Gaztetxoen mailan:
 1. Maide Garmendia
 2. Aner Perez
 3. Maddi Aiestaran
- Gazte mailan:
 1. Aitor Servier
 2. Jone Makazaga
 3. Ane Beloki
- Helduen mailan:
 1. Jon Martin
 2. Amaia Agirre
 3. Nikolas Zendoia

Pello Mari Otaño Bertsopaper Lehiaketa (2. 2014. Zizurkil)

BDB fitxa: <http://bdb.bertsozale.eus/web/aldizkako/view/2048-pello-mari-otao-bertsopaper-lehiaketa-2.-2014.-zizurkil>

Maiztasuna: Urtero

Kokapena: Gipuzkoa

Hedadura: Euskal Herria eta diaspora

Antolatzailea: Teodoro Hernandorena Kultur Elkarte

Saridunak:

- Helduen maila:
 1. Amaia Agirre, ‘Donostia Europako kultur hiriburu’
 2. Aitor Albistur, ‘Zuri, ama’
- Gazteen maila:
 1. Maialen Akizu, ‘(Lan) bideak’
 2. Aitor Servier, ‘Krisia’
- Diaspora:
 1. Todor Azurza, “Euskara, gure eguneroko borroka”

San Andres Bertso-paper Lehiaketa (20. 2014. Eibar)

BDB fitxa: <http://bdb.bertsozale.eus/web/aldizkakoa/view/2130-san-andres-bertso-paper-lehiaketa-20.-2014.-eibar>

Maiztasuna: Urtero

Kokapena: Gipuzkoa

Hedadura: Euskal Herria, Eibar

Antolatzailea: Eta Kitto! Euskara Elkarte

Saridunak:

- 16 urtetik gorakoak:
 1. Manu Goigana
 2. Aimar Goenaga
- 16 urtetik beharakoak:
 1. Malen Suarez
 2. Panlo Santos

San Antontxu Bertso-paper Lehiaketa (16. 2014. Mungia)

BDB fitxa: <http://bdb.bertsozale.eus/web/aldizkakoa/view/1996-san-antontxu-bertso-paper-lehiaketa-16.-2014.-mungia>

Maiztasuna: Urtero

Kokapena: Bizkaia

Hedadura: Euskal Herria

Antolatzailea: Mungiako Bertso-Eskola (Taket)

Saridunak:

- Gazteak:
 1. Saria: "Maitasun itsua" (Paule Ixiar Loizaga, Sopela)
 2. Saria: "Ordu bete atzera estatu espainiarra" (Aitor Servier, Azkaine)
 3. Saria: "Oroitzapenak" (Iker Elortegi, Gatika)
 Aipamenak:
 - ° "Bertsoekin bizi naiz" (Olaia Gallastegi, Fruiz)
 - ° "Gabon hauetan pasa dot" (Izaro Martin, Mungia)
- Helduak:
 1. Saria: "Ostopen aukerak" (Iñigo Legorburu, Orereta)
 2. Saria: "Abenduko hotzak" (Ardatz Enbeita, Muxika)
 3. Saria: "Euskaldun barri bat BEC-en" (Iratxe Ibarra, Markina-Xemein)
 Aipamenak:
 - ° "Pobsvonder" (Erlantz Astorkiza, Mungia)

- ° “Ospitalean zeuri begire” (Garazi Mendoza, Mungia)
- ° “Haurra” (Beñat Barainka, Arrieta)
- ° “Bat gehi bat ez denean bi”, Iraitz Bilbao, Mungia)
- ° “Ikara” (Naroa Elortegi, Gatika)

San Telmo Literatur Saria (31. 2014. Zumaia)

BDB fitxa: <http://bdb.bertsozale.eus/es/web/aldizkako/view/2194-san-telmo-literatur-saria-31.-2014.-zumaia>

Kokapena: Gipuzkoa

Hedadura: Zumaia

Antolatzailea: Zumaiaiko Udala

Saridunak:

- LH 3. Maila: Odette Manterola Tena “Ostadarra”
- L.H 4 Maila: Maria Rigüela Rodriguez “Inauteriak”
- L.H 5. Maila: Intza Martin Egaña “Bertsoak”
- L.H 6. Maila: Eire Salegi Zulaika “Ama”
- DBH 1. Maila: Martin Etxaniz Iruretagoiena “Narrondo”
- DBH 2. Maila: Irati Azpiaz Galartza “Aittitte”
- DBH 3. Maila: Peio Etxabe Arregi “Aitona Xanti”
- DBH 4. Maila: Aritz Eizagirre Urain “Baserrian erroturik”
- Batxilergoa 1: Haizea Aizpurua Goienetxea “Garaipenaren bidean”

Santixabel Bertsopaper Lehiaketa (38. 2014. Usurbil)

BDB fitxa: <http://bdb.bertsozale.eus/web/aldizkako/view/2114-santixabel-bertso-paper-lehiaketa-38.-2014.-usurbil>

Maiztasuna: Urtero

Kokapena: Gipuzkoa

Hedadura: Usurbil

Antolatzailea: Usurbilgo Udala

Saridunak: [Antton Aranburu](#)

Urretxu eta Zumarragako Eskolarteko Bertsopaper Lehiaketa (27. 2014. Urretxu-Zumarraga)

BDB fitxa: <http://bdb.bertsozale.eus/web/aldizkako/view/2009-urretxu-eta-zumarragako-eskolarteko-bertso-paper-lehiaketa-27.-2014.-urretxu-zumarraga>

Maiztasuna: Urtero

Kokapena: Gipuzkoa

Hedadura: Urretxu-Zumarraga

Antolatzailea: Zumarraga-Urretxuko Bertso-Eskola

Saridunak:

- A maila (LHko 5. eta 6. mailak)
 1. saria: Malen Badiola Intxausti
 2. saria: Alaitz Lopez Gonzalez
 3. saria: Oscar Mba Nsue Andeme

Aipamen bereziak: Izaro Lesaka Txintxurreta, Maren Albisua
Idiakez , Oier Chico Basabe, Maitane Guzman Rodriguez, Maren
Etxeberria Altzelai, Iune Gurrutxaga Matilla, Maddi Urbizu
Altzelai, June Arozena Dominguez, Irune Erostarbe Rodrigo, Uxuri
Urrate Ibarzabal
- B maila (DBHko 1. eta 2. mailak)
 1. saria: Xabier Etxezarreta Garate
 2. saria: Aner Arozena Dominguez
 3. saria: Haritz Chico Izagirre

Aipamen bereziak: Aitor Enparanza Etxaniz, Igor Garcia Sanz, Iker
Martinez Garralda, Iñaki Godoy Jimenez
- D maila (DBHko 3. eta 4. mailak)
 1. saria: Sara Bidarte Begiristain

Villabonako Bertso eta Ipuin Lehiaketa (23. 2014. Villabona)

BDB fitxa: <http://bdb.bertsozale.eus/web/aldizkakoa/view/2072-villabonako-bertso-eta-ipuin-lehiaketa-23.-2014.-villabona>

Maiztasuna: Urtero

Kokapena: Gipuzkoa

Hedadura: Villabona

Antolatzailea: Villabonako Udala. Euskara

Saridunak:

- LH 3-4
 - 1.- Baratza – Oier Aranburu (Ikastola)
 - 2.- Natura – Maialen Velazquez (Ikastola)
 - 3.- Aste Santuko oporrak – Markel Etxeberria (Ikastola)
- LH 5-6
 - 1.- Pelukeri aldrebesa – Enara Lertxundi (Ikastola)
 - 2.- Umeen gaixotasuna – Aicha Olaiz (Fleming)
 - 3.- Pijama festa – Paula Gibello (Fleming)

Aipamen berezia: Amasa independente – Kepa Otegi (Fleming)

- DBH 1-2
 - 1.- Nora goaz hil eta gero? – Aizpea Belasko (Erniobeia)
 - 2.- Irakasle mozkorren eguna – Xabi Lasa (Erniobeia)
 - 3.- Euskal Herria – Iratxe Mateos (Erniobeia)
- DBH 3-4
 - 1.- Basamortutik – Igor Gorostidi (Erniobeia)
 - 2.- Natura gure eskuetan – Asier Diaz (Erniobeia)
 - 3.- Gallardon jauna – Nerea Castro (Erniobeia)Aipamen berezia: Emakume ez inoren menpe – Maddi Otegi (Erniobeia)

Xabier Munibe Bertsopaper Lehiaketa (23. 2014. Azkoitia)

BDB fitxa: <http://bdb.bertsozale.eus/web/aldizkakoa/view/2025-xabier-munibe-bertso-paper-lehiaketa-23.-2014.-azkoitia>

Maiztasuna: Urtero

Kokapena: Gipuzkoa

Hedadura: Urola Kosta

Antolatzailea: Indarlan Guraso Elkarte (Xabier Munibe Ikastola) ;
Udaberri Guraso Elkarte (Xabier Munibe Ikastola)

Saridunak:

- B mailan, DBH: 1. eta 2. mailako ikasleak
 - 1.saria: Asier Ganzarain, Marat Ansoalde eta Aimar Guenbe. “Udarako opariak”.
 - 2.saria: Iker Moto, Julen Larrañaga eta Endika Agirre. “Teknologia eta gurasoak”.
 - 3.saria: Malen Bastarrika eta Idoia Larrañaga. “Dantzak”.
 - 4.saria: Elene Agirre eta Maddi Gajate. “Festak”.
- A mailan, DBH 3. eta 4. mailako ikasleak
 - 1.saria: Ander Garayar. “Urteroko oporrak”.
 - 2.saria: Jone Makazaga. “Maitasunaren kondena”.
 - 3.saria: Jon Izagirre. “Ceuta eta Melilla”.
 - 4.saria: Ane Peñagarikano. “Nerabetasunari”.
- Azkoitarren saria: Jone Zabaleta. “Chibok Herriko malkoak”.

Zapirain Anaiak Bertsopaper Lehiaketa (26. 2014. Erretereria)

BDB fitxa: <http://bdb.bertsozale.eus/web/aldizkakoa/view/2135-zapirain-anaiak-bertso-paper-lehiaketa-26.-2014.-erretereria>

Maiztasuna: Urtero

Kokapena: Gipuzkoa

Hedadura: Euskal Herria

Antolatzailea: Erretereriako Bertso-Eskola (Xenpelar), Lau Haizetara Elkartea

Sariduna: [Ane Labaka](#)

Zubeltzu Bertsopaper Lehiaketa (5. 2014. Deba-Itziar)

BDB fitxa: <http://bdb.bertsozale.eus/web/aldizkakoa/view/2109-zubeltzu-bertso-paper-lehiaketa-5.-2014.-deba-itziar>

Kokapena: Gipuzkoa

Hedadura: Deba - Itziar

Antolatzailea: Debako Udala. Euskara ; Zuhatza Kultur Elkartea

Saridunak:

- Lehen Hezkuntza:
 1. saria: Aloña Salegi. “Salbatore”
 2. saria: Ane Txurruka. “Bitxito”
 3. saria: Goreti Unanue. “Gore”
- 2. DBH:
 1. saria: Aitor Arakistain. “Ura”
 2. saria: Ekaitz Zubimendi. “Ieup”
 3. saria: Julen Arufe. “Euskaldun petoak”
- 3. Nagusiak:
 1. saria: Ander Zulaika. “Pop begi urdin”
 2. saria: Karlos Larrañaga. “Lastur”
 3. saria: Luis Mari Agirrezabala. “Zelaitxo”

BAT-BATEKO BERTSO HAUTATUAK



Bertso Eguna

Donostia, 2014-01-25

Iturria: XDZ

Argazkilaria: Gari Garaialde

AJANGIZ (2014-01-03)

Bertsolariak: X. Amuriza eta J. Maia.

Gai-emailea: Josu Goikoetxea.

Lagun arteko saioa, bertso afaria, Ajangizko Herriko tabernan. Bertsolariek gai librean eta Goikoetxeak jarritako gaien harira kantatu zuten. Librean egindako saioaren bukaera aldera puntutan egin zuten, eta bertsoaldi hori jaso dugu hemen.

J. Maia – X. Amuriza

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Haizeak bidali du*

J. Maia

Aurretikan daukagu
urte bat luzea

X. Amuriza

barria izan leike
busti edo hezea

J. Maia

bederen etorri da
ze hego-haizea!

X. Amuriza

Izan liteke igual
gaixtoen klasea.

X. Amuriza

Krisia amaitzeko
bada itxaropena

J. Maia

ez det uste amaitu
daitekeenik dena

X. Amuriza

baina badaezpada
ipini antena

J. Maia

oraindik ikusteko
daukagu txarrena.

J. Maia

Azkar saltzen digute
ja bukatu dala

X. Amuriza

zuk ez sinistutea
hori naturala

J. Maia

engainatzen gaituzte
panpinak bezala.

X. Amuriza

Nik uste dot onena
faltetan jatala.

X. Amuriza

Adinez aurrerantza
badoa gizona

J. Maia

eta adinarena
inoiz ez da broma

X. Amuriza

eta atzetik dator
alboan dagona

J. Maia

ez dago abade bat
zaharra eta ona.

J. Maia

Baina ia gertuago
daukazu zerua

X. Amuriza

hantxe izango naz ni
zure aingerua

J. Maia

hil eta heldu jatzu
bizitzan negua

X. Amuriza

ta presentatuko dut
Jon Maian burua.

X. Amuriza

San Pedrok esango dau
“Pasatu aurrera”

J. Maia

guztiok nahi genuke
holako harrera

X. Amuriza

eta gero Jon Maia
bota bazterrera

J. Maia

zu igual pixka’t lehenago
iritsiko zera.

J. Maia

Ta zuk guri kontatu
nola den bidea

X. Amuriza

hortarako nahi neuke
abilidadea

J. Maia

zeruan ze ate jo
esan helbidea

X. Amuriza

inpernura joatea
ez al da hobe?

X. Amuriza

Ta bitartean dago
Jon Maian linboa

J. Maia

hor fijo egongo da
kristoren giroa

X. Amuriza

eta bere buruan
laino edo ninboa

J. Maia

eske zeruan goitik
dena bertigo.

- J. Maia
Linboan oso ona
da temperatura
- X. Amuriza
purgartorioak dauka
erdiko altura
- J. Maia
linboan patxarana
ta zeruan ura
- X. Amuriza
Jon Maiaren ondora
ez neuke joan gura.
- X. Amuriza
Baina zelan edo halan
joan beharko hara
- J. Maia
zu nere aurretikan
joango beharko zara
- X. Amuriza
harrokeri gehiegi
ez jo badaezpada
- J. Maia
nahiko zeru ez al da
hemengo ganbara?
- J. Maia
Bertan hil ezkerore
ez da leku txarra
- X. Amuriza
hori gaur daukagula
probatu beharra
- J. Maia
Jonen burua eta
Xabierren bizarra
- X. Amuriza
orain falta jakuna
Venusen izarra.
- X. Amuriza
Baina Jon Maia hemen
afalondo baten
- J. Maia
gezur handirik behintzat
ez degu esaten.
- X. Amuriza
Lehenengo saioa da
guretzako aurtan
- J. Maia
etorri diran denek
gozatu dezaten.
- J. Maia
Lehenengoa beti da
gogoratzekoa
- X. Amuriza
orain esango dozu
“Ai bihotzekoa!”
- J. Maia
Zuk oroitzen al dezu
lehendabizikoa?
- X. Amuriza
Orain bi urte izan zan
nahiko konpletoa.
- X. Amuriza
Orduan hiru ginan
gaur ni ta Jon Maia
- J. Maia
hoberantz egiteko
bazendun garaia
- X. Amuriza
ta zelan egin dozu
honanzko bidaia?
- J. Maia
Izan nahi nuelako
zure apaizgaia.

J. Maia

Diote zure ondoan
asko ikasten dela

X. Amuriza

aspaldidanik hori
aditu nuela

J. Maia

hala egin banu lehen
seguru txapela

X. Amuriza

tontoa ez bazara
ezin lei bestela.

X. Amuriza

Txapelari begira
barriro jarri da

J. Maia

baina bakar-bakarrik
urrundik begira.

X. Amuriza

Berriak be badatoz
egon lasai tira!

J. Maia

Barriak gero ere
etorriko dira.

OÑATI (2014-01-05)

*Bertsolariak: A. Arzallus, M. Lujanbio, A. Sarriegi,
S. Colina, B. Gaztelumendi, A. Mendiluze, U. Iturriaga
eta I. Elortza.*

Gai-emailea: Irati Sagarzazu.

Oñatiko Bertso Eskolak antolatzen duen urteroko errege bezperako zita. Aurten zortzi finalistekin egitea erabaki zuten, eta txapelketak ekarritako olatuarekin edo, sarrerak berehala agortu ziren. Orduan, jende gehiagori aukera emate aldera, frontoi ondoko kiroldegira, Zubikoa kiroldegira, pasatu zen. Guztira ia 1000 entzule.

M. Lujanbio – U. Iturriaga

Gaia: Maialen printzesa bat izango da, eta ipuinetan ohikoa den modura, dorre batean dago preso, laguntza eske. Baina lasai, badator Unai printze urdina. Sekulakoak eta bi egin behar izan ditu ailegatzeko: laberintoa pasatu, baso sorgindua, zazpi buruko herensugearen kontra borroka egin... Baina ailegatu zara Unai. Elkarrengana batutakoan, Maialenek esan dizu ezetz, berak ez duela zurekin gura.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Dama gazte xarmant bat*

M. Lujanbio

Horrenbeste urtetan
azkazalak jaten
horko printze urdinek
salbatu nazaten.
Tipo patiladun hau
orain gela baten
ipuinek beste zerbait
kontatzen zidaten. (bis)

U. Iturriaga

Kontau dizut guztia
denbora akabo!
Normala burruketan
zahartua nago.
Goian pixka't urdina
onartzen dut *klaro*
baina zilar bihurtzen da
pixka bat beherago. (bis)

U. Iturriaga

Ba nik zure oihua
entzun nuenean
arrapaladan irten
ta sua senean
hamar urte kostata
heldu azkenean
ederragoa nintzen
irten nintzenean! (bis)

M. Lujanbio

Zilarraren dizdirak
ez zaizkit ahaztutzen
biok helduagatik
ez da berandutzen
zure zai zenbat urte
hamabost hain zuzen
nere birjintasuna
ere urdinu zen. (bis)

M. Lujanbio

Pasa dituzu zulo
ibai eta malda
denbora joan zaizu
saka gabe galga.
Printze urdinen batek
behar nindun asalda
zure urdintasuna
ileena al da? (bis)

U. Iturriaga

Gorritu egin daiteke
urdindu bezela
nigana ez duzu baina
zuk grina itzela
ta ikusita nola
puztu den sabela
onartu Quasimodok
jartzen zaituela. (bis)

M. Lujanbio

Nahiz eta Quasimodok
neri izan erruki
nere ametsen printzea
baineukan urruti
orain beiratzten diot
orain tipo bati
bueno burua zabalik
behar da eduki. (bis)

U. Iturriaga

Hori ona da noski
badakizu jakin
azkenean moldatu
behar duzu nirekin.
Normala zuri ere
odola irakin
aukera zan nirekin
edo inorekin (bis)

I. Elortza - U. Iturriaga

Gaia: Gabonetako bazkari batean gaude. Unai jesarri da eta Igor amama hasi zaio jana bota eta bota, geratu gabe. Eta Unaik esan dio: “Ez, ni makrobiotikoa naiz”.

Neurria: Hamarreko txikia

Doinua: *Hamalau heriotzena*

I. Elortza

Beti izan zara mutil
ederra, polita
platera uzten zuena
goraino jarrita.
Gaur zu etxeratzeko
banuen irrika
ta botatzen didazu
makrobiotika.
Trankil ez zait inporta
niri politika.

U. Iturriaga

Neurririk ez daukazu
amama janean
ni neu ez naiz aldatu
zure esanean.
Hori ez da politika
hori dau senean
zu geratuko zara
soilik azkenean
belarritik irteten
hasten zaidanean.

I. Elortza

Oraintxe utzi nauzu
 zuk iloba jota
 falta dira arraina
 txuleta, konpota...
 Esan dut politika
 ez zela inporta
 nondik ateratzen den
 igualtsu da soka
 komunean denontzat
 lekua dago ta.

U. Iturriaga

Komuna txikia da
 ta amama kasu
 aitita egoten da
 han itxita usu.
 Makrobiotikoa
 naiz ta okelari su
 politika egiten
 oraintxe zabiltz zu
 ze ni errauskailu bat
 naizela uste duzu.

I. Elortza

Dakarzun diskurtsoaz
 ez nauzu alaitu
 segidarekin ere
 ezin dut lasaitu.
 Zure senak sarritan
 gu harritu gaitu
 besteok amaitu ta
 zuk berriz jarraitu
 nobia berri horrek
 izorratu zaitu.

U. Iturriaga

Arrazoiren bat beti
 badago atzetik
 nobia izango da
 behintzat zure ustetik.
 Makrobiotikai buruz
 hark erakutsi dit
 akaso urrundu nau
 pixka bat etxetik
 libratu egin nau behintzat
 lehertuta hiltzetik.

S. Colina – A. Sarriegi

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13nu4s>

Gaia: Urtezahar gauez elkarrekin liatu zineten. Urte berria da, eta Aitor, Sustraik esan dizu urtea inoiz baino hobeto hasi duela.

Neurria: Hamarreko txikia

Doinua: *Antton eta Maria*

A. Sarriegi

Normala degun gisan
urte bukaeran
ondo afaldu genuen
ta gero latz edan.
Hara urte berrian
non aurkitzen geran!
Beste mutur zuri hau
mamu baten eran
amesgaizto bat zala
uste nun haseran. (bis)

A. Sarriegi

Hantxe ikusi nuen
barra ertzean zain
ta ustez hartu nion
urrutitik usain
baina gaurko sorpresa
desatsegina hain!
Atzo kriston rubia
gorputz latz ta apain
ordu batzuk pasatu
ta begira orain. (bis)

S. Colina

Goizez esnatu zara
azpian almohada
eta zure gainetik
ni eta izara.
Nahiz ta juzgatu nauzun
mamuen gisara
zuk ez onartu arren
maitemindu zara.
Bi mila ta hamalaua
gure urtea da! (bis)

S. Colina

Atzo edan zenuen
pranko *San Miguela*
pentsatu bazenuen
rubia nintzela.
Nik berriz topatu dut
sekulako perla
Jangoikuak eskerrak
eskerrak *kauenla!*
kantzontzilo gorriak
jantzi nituela! (bis)

A. Sarriegi

Eta gainera nahita
ni konkistatzera
oraintxe sentitzen naiz
engainatu antzera.
Bota du kantzontzilo
gorriak ta zera
urtea hanka txarrez
hastea haxe da.
Ezin al degu egin
denboran atzera? (bis)

A. Sarriegi

Bakarrik hobe da
batzutan zuk jakin
nahiz ta aurkitu naizen
konpaniarekin
zu pozik omen zaude
eta ni ez *enfin!*
Lehenbailehen ohetik
irtetei ekin
A! ta kantzontziloak
eraman zurekin. (bis)

S. Colina

Nahiz erantzuna izan
“Bai zera! Bai zera!”
Aitor ez zaitez jarri
txuloen haizera
ze egingo bagendu
denboran atzera
nekin joango zinake
berriro ohera.
Ez pentsa daukazunik
hainbeste aukera. (bis)

S. Colina

Nahiz eta orain esan
“Akabo! Akabo!”
hori pentsatu behar
zenuen lehenago.
Pixkaka hasten denak
zor baitu gehiago
bazkaltzera inbitatu
beharrean nago.
Ama zu ezautzeko
desiatzen dago. (bis)

A. Sarriegi-M. Lujanbio

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13nv78>

Gaia: Aitor, zure ametsa izan da beti magoa izatea. Baina horretarako asko entseatu behar da. Eta Maialeni eskatu diozu laguntza. Hasi zara Maialen kajoian sartu, mahaian etzan eta zerrarekin.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Orioko balearena*

A. Sarriegi

Truko hau ona izan da
eta hala bedi
kaxan ipini eta
ni prestatzen segi.
Biok ipini gara
aurpegiz aurpegi
moztera noa eta
egon zaitez geldi! (bis)

M. Lujanbio

Urratuk egin dizkit
ia bat edo bi
baina iztarretan ez
ez hori, ez hori!
Oilaskoaz badakit
hainbeste teori
eta junturetatik
moztutzen da ongi. (bis)

M. Lujanbio

Ni geldi-geldi nago
baezpa zer gerta
ze espero nezakeen
zalantzaz beteta
ez kopa, sonbrero ta
ez galtza, ez txaketa
karnizero mantala
ipini du eta. (bis)

A. Sarriegi

Esplikatu didazu
junturak ta zera
baina ni utzi nauzu
despistatu antzera
ez banaiz iritsiko
hezurra moztera
motozerraren bila
noa garajera. (bis)

A. Sarriegi

Baina gaurko magoak
nahi badezu jakin
aktuatu ohi degu
traje askorekin.
Ta konfiantza izan
dezazun nerekin
ondo irten zitzaidan
oilasko batekin. (bis)

M. Lujanbio

Hain terrorifikoa
baita gure Sarri
motozerra piztuta
geratu naiz larri.
Ebaki dizkit hankak
ni hezur ta harri.
Faborez hain urrun ez
honuntzago ekarri. (bis)

A. Sarriegi

Azkenean egin det
 nik nahi nuen aina
 orain berriro lotzen
 lanak dauzkat baina
 beti hankamotz izan
 zera alajaina!
 Ez dago alde handirik
 lehengotik oraina. (bis)

M. Lujanbio

Belaun eta ukondo
 lehenbizi kraskatu
 azkenerako zazpi
 puskatan puskatu.
 Hain da hau tipo motza
 hain dago kaskatu
 oain puzzlea osatzen
 ezin du asmatu (bis)



Bertso Eguna

Donostia, 2014-01-25

Iturria: XDZ

Argazkilaria: Gari Garaialde

ERRATZU (2014-01-18)

Bertsolariak: Julio Soto, Agin Laburu eta Jon Maia.

Gai-emailea: Fernando Anbustegi.

Etxelebert Elkarteak urtero antolatzen duen saioa. Bertso afari moduan, 90 afaltiarrekin, elkartean bertan. Saioa bi zatitan egin zen, lehen zatian librean hasi eta trikitixaren laguntzaz (Xabier Urtasun eta Maialen Kamino) kantatutako koplekin akitu zen. Bigarren zatian Fernando Anbustegik jarri zituen gaiak.

J. Soto - A. Laburu

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13o09k>

Gaia: Lagunak zarete. Zu, Julio, baikorra zara, eta Agin ezkorra. Azkenaldi honetan gauza polit aunitz pasatu zaizkizue, eta Julio kontent dago. Aginek uste du hainbeste gauza onek zerbait txarra ekarriko dutela.

Neurria: Hamarreko txikia

Doinua: *Zer da gaur Donostian?*

A. Laburu

Bertso saio batera
beti pletoriko
Agin ez da lurrera
inoiz eroriko
bertsoa hasi, buka
egin eta kito!
Baino nahiz ta onduan
eduki bi mito
seguru nago ondo
ez dira ariko. (bis)

J. Soto

Erratzura etorri
gara aurtengoan
ilusio bizi ta
kantatze sendoan
ta zeinen pozik nagon
ai hau nora doan!
Jon Maiakin kantuan
ze pozik nengon
ta hori gutxi balitz
Aginen ondoan! (bis)

A. Laburu

Erabat osasuntsu
kadera ta izter
nere herrian ia
sentitzen naiz *mister*
hara ta hona nabil
ez ninteko asper
loteria tokatu
eskuin eta esker
baina langabezian
egongo naiz laster. (bis)

J. Soto

Orain musu ematen dit
ezpain baztarretik
eskua pasatzen dut
bere izterretik
nahiz zuk bezelaxe ez
daukadan misterretik
ta txapelketan ere
nahiz bide txarretik
gutxienez egin nun
Jon Maian aurretik. (bis)

J. Soto

Agin ez zaidazula
esan holakorik!
Ba al dago langabe
bizi ainakorik?
Loteria ez dut baina
bi txanpon jasorik
maiteminduta nago
ta nago osorik
ta ja gainera ez zait
irtetzen granorik. (bis)

A. Laburu

Jon Maia gizajuak
hamaika desgrazi
hik gatza botaz orain
kabroi latza haiz hi!
Uste det ez diola
horrek egin grazi.
Baino hi naparra haiz
eta ez nahasi.
Hurrengoan Silveirak
baietz irabazi! (bis)

A. Laburu

Gaztetan neri ere
granoekin burla
nesketan ezin egin
ta nola kalkula?
Zu ere berdin zebiltzan
ezin disimula.
Orain lortuagatik
zure pelikula
egon seguru gero
utziko zaitula. (bis)

J. Soto

Silveira izan dadila
bertsoaren apaiz
ni txapeletaz paso
ja jantzi ditut maiz
ta orain emagun buelta
ta alda 'zagusn gaiz.
Zuk segi zazu zure
malko ta zorigaitz
ni puta madre nago
zoriontsua naiz. (bis)

A. Laburu

Ni beti ez naiz bizi
triste ta negarrez
baino abisu eman
behar nizun aurrez.
Beti esaten da “Gaur
eta gero... gaur ez”.
Nahiz egun ederrekin
beti egin amets
beti egongo da norbait
izorrazeko prest. (bis)

J. Soto

Baina ze gozamena
daukadana aurtan
ez dakit poz gehiago
izan al nezakeen
ta nork izorratuko
nau ni azken baten
ta guapo egoteko
egia esaten
ez dut atorrik jantzi
beharrik izaten. (bis)

J. Soto

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13o1c0>

Gaia: Gaur ezkondu zara, eta ezkon gaua iritsi da. Bakarrik egingo duzu lo.

Neurria: Hamalauko berdina, 7 puntuz eta 8 silabaz

Doinua: *ETAren su-etenetik*

Bera larreko larrosa
ni osin arteko lapaitz
bera kabiko txoritxo
ta ni arrano zapelaitz
bere kabitik bueltaka
nenbilen hodei ta harkaitz
ta azkenean konkistatu
nuen amestu nuna maiz.
Gaur udaletxe parean
ez eliza ta ez apaiz
sartu dit eraztuntxo
ez malko ta ez zorigaitz
ta nik irri egin diot
eta zoriontsua naiz. (bis)

“Ai Julio maite zaitut”
“Nik ere bai txoriburu”
“Zatoz emaidazu musu
bai, bai nagola seguru”
“Bale ba emango dizut
eta ez egin tururu”
ta ezpainak ezpain kontra
heze ipini ditugu
eta gero banketea
baginen ziento bat buru
ta bera edaten ari
zenez glu-glu-glu-glu-glu-glu
nik zera pentsatzen nuen:
gaur ongi pasako dugu. (bis)

Gu gara *señor* ta *señor*
 ez *señor* eta *señora*
 ni Julio bera Agin
 eta biak txora-txora
 bera beti dago triste
 ni beti nago gustora
 bere ondoan pasa nahi
 nuke bizitza denbora
 baina joan gara gelara
 bera besoetan gora
 ta kaguendios lo hartu du
 ta zergatik izango da?
 Burua galtzen dulako
 sagardotikan kanpora. (bis)

TOLOSA (2014-01-18)

*Bertsolariak: I. Elortza, J.M. Irazu, A. Egaña, J. Maia,
 M. Lujanbio eta A. Arzallus.*

Gai-emailea: Amaia Agirre.

Leidor antzokian, urte batzuetan Txolarre irratiak antolatutako saio arrakastatsua izan da. Oraingoa Atariak antolatu zuen. Tolosaldeko komunikazio taldea da Ataria, non bildu berri diren *Txolarre Irratia*, *Galtzaundi* aldizkaria eta *Hitza*. Jendez lepo aurten ere (850 lagun); sarrerak hamar egun lehenago agortu ziren. Primerako giroa eta saioa mimoz prestatutakoa izan zen.

A. Egaña- A. Arzallus

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13o2ec>

Gaia: Andoni, zuk lehenengo txapela irabazi zenuenean, Ametsek 10 urte zituen. Eta Ametsek jantzi duenean, Andonik 52 urte. Biek adin beretsuan jantzi zenuten. Ametsek 30ekin eta Andonik 32rekin.

Bertsolaritzak zer eman eta zer kendu dizue? Elkarri zer eman eta zer kendu diozue? Zein da zuen arteko batura?

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Haurtxo txikia negarrez dago I*

A. Egaña

Bertso munduan sartu nintzan behin
ene ze atarramendu!
Orduz geroztik hori izan da
nire bizitza-zimendu.
Zer kendu didan, zer eman didan
ene jakingo bazendu!
Neri ametsak eskaini dizkit
eta lo orduak kendu.

A. Arzallus

Bertsoak eman izan dizkigu
errimak eta idea.
Bertsoak lotzen nauen neurrian
egiten nau hain librea.
Bertsoak ia herri guztitan
utzi dit adiskidea
ta batez ere korapiloak
aska ditzadan bidea.

A. Egaña

Bertsoa degu gazte garaian
kapritxoa, kutizia
bizitza enbor sasoi horretan
geure bizitza guzia.
Erdi zahartuta ezin det utzi
hauxe da hau desgrazia!
Ametsi esker orain badaukat
norengeandik ikasia.

A. Arzallus

Ni haurra nintzen garai haietan
 zenbat grin ta zenbat estres
 ta Andoniren bertsoen bila
 han ibiltzen nintzen *espres*.
 Orain bertsoak erakutsi dit
 hitzak kanporatzen errez
 ta batez ere adiskideei
 zer sinistu eta zer ez.

A. Egaña

Zuk hamar urte zenezkan Amets
 Amaiak bikain kalkula
 esaten dute bertsolaritza
 aspalditikan dezula.
 Belodromoan *noventa y tresen*
 mito urbano mardula:
 egia al da arratsaldean
 bertan lo hartu zendula?

A. Arzallus

Ezin hasiko naiz gaur Leidorren
 sekretu denen kontari
 lo hartu nuen une baten bai
 baina ez zinen zu kantari.
 Nik hamar urte neuzkan orduan
 ez berrogeita hamabi
 zu entzutea joan al nintekeen
 galdetzen nion amari.

*I. Elortza-J.M. Irazu-A. Egaña-J. Maia-M. Lujanbio
A. Arzallus*

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/1303go>

Gaia: Seiak altxarazi eta beraien artean antolatu eta nahi dutena egiteko esan die Amaiak. Hirunaka jarri eta puntutan egin dute. Juxtu (edo hala nahita) alde batean, BECen, Txapelketa Nagusiko finalean egondakoak jarri dira, eta bestean, egon ez zirenak. Horrek eman du gaia.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Xarmangarria zera I*

A. Arzallus

Autoantolatzeke
nolako eskola!

M. Lujanbio

Hau da banaketa ta
ez da karanbola

I. Elortza

Azkenerako dugu
kriston deskontrola

A. Arzallus

nik ez dakit zergatik
jarri geran hola.

J. Maia

Hola egin litezke
sekulako bromak

A. Egaña

bertso batzuk arinak
besteak sakonak

J.M. Irazu

hor daude oain daudenak
hemen lehen egonak

J. Maia

hor daude finalistak
eta hemen onak.

M. Lujanbio

Nola sartu zerate
sarrerarik gabe?

I. Elortza

Ez guri lataik eman
alde, alde, alde!

A. Arzallus

Di Caprio mesedez
hitz egin suabe

M. Lujanbio

hoik sarrera rebentan
erosita daude.

A. Egaña (*)

Irazu hago geldik
kauen la puñeta!

J.M. Irazu

Bakoitzak bere neurrin
egon behar du eta.

J. Maia

Honek irabazten du
zorri txapelketa.

A. Egaña

Zuek hirurak ojo
hau BEC ez da eta.

(*) Irazu lekuz aldatzen da. Erdian, bajuago, eta beste taldetik gertuago, dagoen mikrofonora.

I. Elortza

Guri lekua kentzen
Irazu bai abil

A. Arzallus

ni ere ia-ia
nahasturik narabil

M. Lujanbio

moittu gelditu gabe
ta ez dabil ixil

I. Elortza

lau urte barrurako
ja prestatzen dabil.

J.M. Irazu

Alde hartatik hona
pasatu naiz hala

J. Maia

beti mugitzen dabil
Larrauleko txahala.

A. Egaña

Irazu hau Leidor dek
hau ez dek finala

J.M. Irazu

erakutsiaz mugan
gelditu nintzala.

A. Arzallus

Irazuk aurkitu du
honuntzako xenda

M. Lujanbio

muga zabal xamarra
ikusi du benga!

I. Elortza

Zortzigarrenearte
heltzen da zerrenda

A. Arzallus

argaldu zanetikan
nonahi pasatzen da.

J. Maia

Gu azkar ari gera
ta hauek poliki

A. Egaña

hoiek aldrebes xamar
gu berriz ederki

J.M. Irazu

gerorako bidea
nahi degu ireki

J. Maia

negar egingo luke
bere amak baleki.

M. Lujanbio

Barka hau da gaur egun
hiruko onena

I. Elortza

etzazu hain garbi esan
pena da hauena

A. Arzallus

neri ere barruraino
ematen dit pena

M. Lujanbio

zuen txapelketa da
beteranoena.

A. Egaña

Irazu mugaraino
joan da gustora

J.M. Irazu

ta harago joan nahi
inondik inora.

J. Maia

Ez zaitte hurreratu
gaixtuen ondora

A. Egaña

orduan ni banoa
zinetik kanpora.

I. Elortza

Orain elkarren kontra
darabilte hitza

A. Arzallus

eta geu harmonia
onean gabiltza

M. Lujanbio

asko sinistu ez ta're
baezpa're mintza

I. Elortza

hauek PP bezela
banatzen dabilta.

J.M. Irazu

Ez, PP ez bezela
ondo gabiltza gu

J. Maia

gu dena esperientzi
galoi eta gradu

A. Egaña

diferentzia onartu
zazute ondradu:

J.M. Irazu

hemen bi txapel daude
hemen lau dauzkagu.



Bertsolariak Libre Ekimena

Gasteizko gaztetxea, 2014-02-20

Iturria: XDZ

DONOSTIA (2014-01-25)

BERTSO EGUNA

Bertsolariak: M. A. Txoperena, I. Gurrutxaga, A. Arzallus, N. Elustondo, M. Lujanbio, B. Gaztelumendi, I. Elortza, A. Agirreazaldegia, U. Alberdi, S. Alkaiza, R. Lazkano eta On. Enbeita.

Gai-emailea: Iraia Elias.

Bertsozale Elkarteak antolatuta, generoa izan zuen gai zentrala. Eta erantzunak baino gehiago galderak azaleratzen ahalegindu ziren antolatzaileak. “Azalera” lelopean aurkeztu zen 2014ko Bertso Eguna.

Bertso-poteoarekin hasi zen jaia, eguerdiz. Iratxe Ibarra, Amaia Agirre, Erika Lagoma, Miren Artetxe, Ane Labaka, Amaia Iturriotz, Maddi Sarasua, Ane Zuazubiskar, Izar Mendiguren eta Itxaso Paia aritu ziren kalez kale kantuan, eta Ondarroako eta Donostiako Andrabanda batuka taldeek lagundu zuten giroa berotzen.

Kursaala beteta, arratsaldeko ekitaldirako sarrerak saioa hasi baino lehenago agortu ziren. Iraia Eliasek gidatuta, hamabi bertsolariez gain, artista gonbidatuak ere izan ziren: Miren Gaztañaga eta Ainhoa Alberdi aktoreak, Judith Montero saxo-jotzailea, Maddi Oihenart kantaria eta “Allarte” (oihal eta dantza taldea). Gorputzaz, identitateaz, aitatasunaz, emakumeek oholtzan lekua hartzeaz, lehiaz, historian emakumeei ukatutako protagonismoaz... Gai askoren gainean aritu ziren kantuan.

Ondoren, afaria Manteo kiroldegira eraman zen, eta goraino bete zen. Iparra-Hegoa taldeak prestatutako afaria bukatuta, bertso-musikatuak eta sorpresak izan ziren. Hiru saio musikaturen ondoren, “Nesketchak” eskaini zituzten: bideo-pieza umoretsuak, generoaren gaia lantzen zutenak. Honako bertsolari eta artista hauek parte hartu zuten gaueko ekitaldian: Miren Artetxe, Estitxu Eizagirre, Idoia Etxeberria, Onintza Garcia, Malen Amenabar, Nerea Ibarzabal,

Hodei Unzueta, Leire Amenabar, Aitor Bizkarra, Joritz Bastarrika, Arrate Gaztelu, Oihana Makazaga, Uxue Larrukert, Aitor Servier, Asier Galarza, Maialen Akizu, Eli Pagola, Kattalin Barcena eta “Lorratzak” taldea. Behin saioak bukatuta, barra zabaldu zen eta “Laket” taldeak girotuta goizeko ordu txikiak arte luzatu zen festa.

M. Lujanbio

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Lurraren pean sar nindaiteke*

Batzuk elkarri kontu-kontari
ironia ta xuxurla
batzuk harritu horrelakorik
ez dela ikusi sekula
batzuk begira erlojuari
noiz bukauko dan kalkula.
Holakoetan sintoma bat da
ta grabea ez da burla
“Emakume” hitza sarri entzuteak
bete egiten gaitula. (bis)

Ikusten baitet hemen jendea
kopeta beltz, ximurtuta
auzo lotsa ta norbere lotsa
eta sillan kixkurtuta
beste batzuek enpatizatzen
ta bihotza xamurtuta
aurrerabide gutxi daukagu
problematika gurtuta
andreak beti konplejuz bete
ta gizonak beldurtuta. (bis)

Baina ezin esan gure egoera
 errez denik ta atsegin
 batzuk nahiago ez entzun baina
 ezin diogu aldegin.
 Bada parretik, bada izerditik
 bada nahiko lan, nahiko min
 kendu ditzagun hauts zaharrak ta
 kopeta beltzeri ixkin
 arazoaren jabe izan ta
 pozetik aurrera egin. (bis)

ANDOAIN (2014-02-09)

*Bertsolariak: A. Mendiluze, M. Lujanbio, U. Agirre,
 A. Martin, A. Sarriegi eta B. Gaztelumendi.*

Gai-emailea: Ion Beloki.

Bastero Kulturgunearen B aretoan azken urteotan igande eguerdiz antolatzen den saioa egin zuten. Andoaingo bertso eskolak lagunduta, Sahararen aldeko taldeak ia 200 lagun bildu zituen oso gertukoa suertatu zen saioan.

*A. Mendiluze-M. Lujanbio-U. Agirre-A. Martin
 A. Sarriegi-B. Gaztelumendi*

Gaia: Ez da ohiko ordua, igandea eta eguerdiko 12:00ak. Zuek zer egiten duzue beste igandeetan ordu honetan?

Neurria: Zortziko handia
 Doinua: *Eguna pasa nekean eta*

A. Mendiluze

Ba goizean goiz ohetik jeiki
saiatu galbana kentzen
ondo gosaldu hautsak garbitu
hori ere egin behar zen
hamabietan suak piztu ta
hasi jatenak prestatzen
bi ume ere han daude eta
sekula ez naiz aspertzen. (bis)

M. Lujanbio

Lo egiten det bertso afaria
izan dedala jakinik
periodikua leitzen det berriz
lo pixkatxo bat eginik
mendi buelta bat igual eiten det
ez badet buruko minik
urte guztian ez det izaten
nik bi igande berdinek. (bis)

U. Agirre

Neronek ere hautsak garbitzen
Aitorren gisako plana
bi umerekin neronek ere
nola dedan harremana
igual kalean jolasten edo
bestela etxeko lana
ordu honetan egin liteke
bertsotan ez beste dana. (bis)

A. Martin

Asteburutan parrandan nabil
ez naiz etxean kabitzen
mundu hontara gozatzeko ta
nahiko alper jaio nintzen
nola igandetan hiruk arte
inoiz ez naizen jeikitzen
pentsatzen nuen igande goizak
ez zirela existitzen. (bis)

A. Sarriegi

Zerua garbi baldin badago
irteten naiz bizikletan
bestela oinez Aralarra
edo Aizkorrira bueltan
txarra badago kiroldegira
eta han igeriketan.
Horiek guztiak egiten ditut
lo nagola ametsetan. (bis)

B. Gaztelumendi.

Alaiak zion igande goiza
benetakoa al zen ba?
Larunbat gauetz hartu badegu
tabernetarako xenda
tripako eta buruko minak
errez ez litezke senda.
Nere etxera egunsentia
eguerdian iristen da. (bis)

M. Lujanbio-B. Gaztelumendi.

Gaia: Maialenek denda bat du Donostiako Alde Zaharrean. Olatuek
ia dena txikitu diote. Laguntza eskatzera joan denean, Beñat,
Donostiako alkatea, topatu du pala batekin La Perla aldera doala.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Kantatzera nijoia*

M. Lujanbio

Olatu ta enbatak
danak parez pare
nere denda xaharra
hautsi du goi ta behe
Juan Karlosek ein behar
hura eta hau`re
Donosti salbatzeko
bakarrik al zaude? (bis)

B. Gaztelumendi

Begira utzitako
zulo sakonean
alkatea ezin da
egon egonean.
La Perlarantza noa
ni nere onean
askoz gutxio ginan
Odon zegonean. (bis)

M. Lujanbio

Zertako izan garai
txar haien akordu?
Odoneri pakean
utziko diogu.
Talasoterapiara
zoaz halamodu
urak trabaik gutxina
hantxe egingo du. (bis)

B. Gaztelumendi.

Bilduk beti izan du
elkartzeko plana
baina argazkiek eman
ohi digute fama.
Beraz alper-alperrik
zatoz neregana
urrutirago heltzen
baita auzolana. (bis)

B. Gaztelumendi.

Baina lokatzak behar
dira erretira
harri zahar bat sartu da
Zentroan erdira
La Perla beti gure
perla denez tira
fotografo guztiak
hara joaten dira. (bis)

M. Lujanbio

Urak danak jan ditu
Alde Zaharreko ertzak
Aiete alderaino're
panorama beltzak
gora ta gora ein du
marean lainedak
Igeldon txokoren bat
ba al dezu neretzat? (bis)

M. Lujanbio

Ta nik berriz lokatza
gero ta gorago
Alde Zaharran bizitza
galdua zeharo
eta zu Bildukoa
zera ta akabo!
Argazkiak han baina
herria hemen dago. (bis)

B. Gaztelumendi.

Beraz Igeldo behar
da hondoratzea
nire Maialen maite
ondo ari zea
baina atzerritarrak han
zail da onartzea
onena dezu bertan
enpadronatzea. (bis)

U. Agirre

Gaia: Apirilaren 5ean Sorozaletik Mendiluzera, Basteron. (*)

Neurria: Hamarreko handia

Doinua: *Gure munduko bizimodua*

Omenaldi izango omen da
ta andoaindarrak nahasi
ni Jokinekin gogoratuaz
ume garaira noa kasi
gureztat bera txapeldun bat zan
nahiz gutxitan irabazi
puntu erantzuten bera imitatzen
sarri asko nintzan hasi
baina gauz batzuk berezko dira
ezin diranak ikasi.

Ta zer besterik esan behar diot
ezkerrian dagon horri (*)
berakin egin nuen bertsotan
berakin jolas ta korri
ze estimazio diodan berai
ezin aitortu inorri
hamaika urtekin garaitu nuen
bi masailak gorri-gorri
baina geroztik inoiz aurrerik
ez diot hartu Aitorri.

Merezi dute eta ireki
omenaldiko atea
nola dohaiez betea degun
gure bikote maitea:
nahiz txapelketan eta nahiz plazan
beti aurrera joatea
arrazoiketan eta bertsotan
nahi dutena esatea
ta Hernaniko bertso eskolan
ikasiak izatea.

(*) Jokin Sorozaletik eta Aitor
Mendiluze andoaindar bertsolariei
herriak prestatuko omenaldia.

(*) Atzean eserita dago Aitor
Mendiluze.

BERGARA (2014-02-09)

*Bertsolariak: A. Arzallus, M. Lujanbio, I. Elortza,
S. Colina, A. Sarriegi, A. Egaña, J. Maia eta
U. Iturriaga.*

Gai-emailea: Josu Goikoetxea.

Gazteen epaiketak salatzeko sortutako “Libre!” ekimenaren barruan antolatutako jaialdia. Sarrerak, ikasle eta langabetuentzat 8 euro eta gainerakoentzat 12 euro.

J. Maia – M. Lujanbio

Gaia.: Ametsetak bi iratxo zarete. Zuk, Jon, amets goxoak ekartzen dizkiozu. Zuk, ordea, Maialen amesgaiztoak. Atzekoak lotan daude eta amets gozo zein gaizto bana eman behar dizkiozue.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Eguna pasa nekean eta*

J. Maia

Errealeko jokolari da
Amets a ze karanbola!
Semifinalak Barçaren kontra
bat eta huts hola-hola
ta ikusi du hortik baloia
bere gainean kontrola
ta txilena bat egin du eta
eskudran sartu du gola. (bis)

M. Lujanbio

Emakume bat azaltzen zaio
bere ama balitz bezela
bere amaren etxean juntu
garbiketan dabilela
amesgaiztoan puntu gorena
latzgarria ta krudela
txapela sartu labadoran ta
enkontitu eiten dela. (bis)

J. Maia

Igor lotan'e Twiteerren dabil
munduko gaiztoen zigor
ta ikusten du Euskal Herria
horren ustel horren idor
bere kontuan egun osoan
ia ez da sartu inor
gauetz Urkulluk erantzun dio
"Arrazoa duzu Igor". (bis)

M. Lujanbio

Nola gogoia izaten duen
txio-loreak jateko
eta ametsak nola haundi-nahiak
ditun garbi esateko
Amesgaiztoa dimensioan
da ametsaren pareko
PNVkoa egin behar dula
lehendakari izateko. (bis)

J. Maia

Ta Sustrai berriz gaua heltzean
hortik joaten da, normala
desio bat du ia gauero
desio bat naturala:
ohean nahi du multitudine bat
ia ipuinetan bezala
ta amesten du Edurne Zurin
ipotxetako bat dala. (bis)

M. Lujanbio

Amesgaiztotan irteten zaizka
ipotx denak elkarrekin
Edurne Zuri ere ohean
ta pasioa errekin
ta paranoia amesgaiztoa
ohi du sortzeari ekin
denek denekin jotzen dutela
eta inork ez berekin. (bis)

J. Maia

Ta Aitor berriz gaba askotan
ibili ohi da arraro
telefonoa, informatika, Facebook
ta hortik harago.
Telefonoa pizten du lotan
eta saltoka luzaro:
“Aiba la letxe Igorrek baino
jarraitzaile bat gehiago!”. (bis)

M. Lujanbio

Bere bizitzan egin ondoren
horrenbeste bertso saio
aje batekin gizona dabil
amesgaiztoan karraio
iraganeko kontua baina
etengabe irteten zaio
Unai Agirrek daukala berak
baino dezima bat gehio. (bis)

J. Maia

Eta Andoniri nahiz ezin zaion
lotan ilerik nahasi
hor ibiltzen da etorkizuna
geroaldi eta sasi.
Bi mila ehun ta hogeita seia
azken txapelketa kasi
eta bi txapel baino gehiago
ez du inork irabazi. (bis)

M. Lujanbio

Ez dala tipo inportante bat
ta ezin dantzatu miztoa
ez dala nesken seduktorea
eta gaztentzat listoa
ezin mozkortu ta ezin montatu
ordu txikitan kristoa
tipo normal bat izatea da
Andonin amesgaiztoa. (bis)

J. Maia

Eta Unaiek jartzen du bere
bertso saioetan rock-a
amets batean hor ibiltzen da
ezerk ez dio inporta:
denak hor daude txintxo eserita
eta itxuraz erdi jota
bera hor dabil “*Viva Mejiko*”
silla gainean saltoka. (bis)

M. Lujanbio

Eta Unairen amesgaiztoa
bezperakoan pereza
silla gainean “*Viva Mejiko*”
oihuak eta laineza
tipoa aldartez pesimista da
nahiko iluna ta beltza
ametsak eta amesgaiztoak
bereizten ez da erreza. (bis)

ZARAUTZ (2014-02-14)

Bertsolariak: Mantxi eta A. Arzallus.

Gai-emailea: Felix Zubia.

Txiki-Polit jabetxean 110 lagunek afaldu zuten, ondoren bi bertsolarien lana entzuteko. Hasieran librean aritu ziren, eta atsedeen tarte baten ondoren, Felix Zubiak proposatutako gaiei erantzunez.

Mantxi - A. Arzallus

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13o5lg>

Gaia: Otsailak 14, San Balentin eguna. Esaten dute, amodioko penek gehiago ematen dutela kanturako amodioaren pozek baino. Ea ze kalabaza jaso dituzten Ametsek eta Mantxik.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Behin batian Loiolan III*

A. Arzallus

Hamabi urte neuzkan
ez askorako gai
auzoko neska batek
ez nindukan lasai
buzoian kartatxo bat
han utzi nion ai!
Oraindik hemen nago
erantzunaren zai. (bis)

Mantxi

Orain hamabost urte
gertatu zen benga!
Festa haundi batean
neska bat gomenda
joan zan ta soilik daukat
orain bere prenda
kristalezko zapata
soilik geratzen da. (bis)

A. Arzallus

Zarauzko malekoian
 izan zan behinhola
 australiana polit bat
 tarteko alkohola
 esan nidan ta harek
 esan zidan "Nola?".
 Iruditzen zait gaizki
 kontatu niola. (bis)

A. Arzallus

Ez zinan beraz esku
 onetan erori
 hainbeste trikimailu
 hainbeste teori
 neri esan zidan "Mantxi
 dago oso ongi"
 "Ez" esateko modu
 polit bat da hori. (bis)

Mantxi

Oraintxe hilabete
 nolako parranda
 kasu hau enmarkatzeko
 modukoa izan da:
 musu ematera joan
 nintzan baina danba
 Amets maite zuela
 esan ez zidan ba! (bis)



Bertso afaria

Zarautz 2014-02-14

Iturria: XDZ

Mantxi - A. Arzallus

Gaia: Mantxi aita izango dugu. Badu alaba bat, Ametsekin hasiberria dena. Gaur bazkaria dute aitaren etxean alabaren urtebetetzea ospatzeko. Ametsek barruko arropa oparitu dio. Aitaren iritzian txiki xamarra eta atrebituegia.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Nere senarrarekin I*

Mantxi

Bazkaita etorri ta
zenbat konpromezu
oparia eman dio
besarka bi musu.
Barruko erropekin
gustora zaude zu
lehenak zaharrak dauzkala
noiz ikusi dezu? (bis)

A. Arzallus

Zure alabak eta nik
zenbat pasadizu
tanga txiki gorri bat
bion paradisu
txikiegia dela
zer zabiltz adizu?
Ez dezu ikusiko
ta ze inporta dizu? (bis)

A. Arzallus

Hara ze kopetak ta
aitaren azalak
berak oparituak
jantzi amantalak.
Ikusiak ditut bai
ta ez dira normalak
nahiko zaharrak dira ta
gainera zabalak. (bis)

Mantxi

Ez detela ikusiko
ezin det ukatu
baina opariari
diot begiratu
tanga txikia ekarri
beretzat hautatu.
Tiratxinas honekin
ezin da tapatu. (bis)

Mantxi

Hemen zer gertatzen den
ezin det kalkula
egin nahi al didazu
iseka ta burla?
Zabala dala esanik
ezin disimula...
esan nahi du eskua
kabitzen zaizula (bis)

A. Arzallus

Gauz berdina ikusten
ai dira begiok
Ni ta zure artekoa
ez beza entzun inork.
Ezin dala tapatu
entzun degu biok
hain zuzen horregatik
oparitu diot. (bis)

Mantxi

Alperrikan ez dauzkat
 horrenbeste urte
 ez pentsatu ni utzi
 nauzunikan mute
 buruan jako dizut
 badakizu zuk`e
 ta guztia tapatu
 beharko dizute. (bis)

A. Arzallus

Bazkari familiarra
 izaten da hala
 aitaginarreba da
 bastante petrala
 tira bukatu zaigu
 agur, diosala
 eskerrak urtean behin
 ikusten gerala. (bis)

ARRASATE (2014-02-18)

Bertsolariak: A. Elexpuru, P. Castillo eta J. Zelaieta

Arrasateko unibertsitateko “Pedro Biteri” ikastetxeko erresidentziara meriendatzera gonbidatu zituzten hiru bertsolari. Bertako “Gela Sozialean” askaria eta gero librean aritu ziren eta Jabier Pikabea eta Unai Ormaetxeak gidatuta hainbat gai, jolas eta ariketa izan zituzten. Libreko zati bat bildu dugu hemen.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Hirurogeita beatzi urte*

A. Elexpuru

Julenek badu gaur ausardia
 hemen kulpak banatzeko
 baino saioa ongi joatea
 gu danontzako hobeto.
 Gaur litxarreriz eta sagardoz
 hementxe daude konpleto
 zuengatikan egin ditugu
 berrehunen bat kilometro.

P. Castillo

Berrehunen bat kilometro ez
ez zaite ibili gezurtan
nola oraintxe egongo garen
hiru bertsoko disputan
ta nola Jabi jarri den lanin
egiten dunez batzutan...
gaurko saioa ona izatea
dago hiruron eskutan.

J. Zelaieta

Baina guk hitza eman genuen
eta hitza dugu bete
kilometroek merezi dute
giro eder hau hainbeste.
Unaik erran du hau ez dela BEC
bale ez da horrenbeste...
Aretoa ez da BEC aina baina
“BIKaina” izan daiteke

A. Elexpuru

Eta BECetik bikainera oin
salto egin dugu lehenbailehen
bere txikian giro ederra
somatutzen dugu hemen
eta gauza bat pentsatzen nabil
zuk hori erran ondoren:
jakin nahi nuke hauetxen notak
ere horren bikainak diren.

P. Castillo

Noten kontuak utzi ditzagun
eta zentratu gaitezen
hirurok kantuz ibil gaitezen
eta kantatuaz ozen.
Horrat aldera begiratu ta
ez al zarete ohartzen?
BECen antzera Imanol ere
hor bertsoak transkribatzen.

J. Zelaieta

Ordenagailu baten aurrean
 jo zeinen tipo ausarta!
 Ez da egongo hau transkribatzen
 ilusioak aparta
 Twitterrean edo arituko da
 ta idatziko zun ttaka!
 “Ze agobioa bertsolariak
 kantuan ari dira ta”.

A. Elexpuru

Eta gaurkoan enteratu naiz
 berak Imanol izen du
 portatilakin gure aurrean
 bera einda nabarmendu
 eta berari ez nioke nahi
 inon merituak kendu
 hobe luke bai *Mecanet* egin
 horrela tekleatzen du.

P. Castillo

Martxa honetan joan egingen da
 bertsolariz aspertuta
Mecanet ez zun gainditu eta
 beharko zun gaindituta.
 Gure hitzekin bizitzen ditu
 momentuz hainbat disputa
 eta aurpegia gorritu izana
 ez da sagardoan kulpa.

J. Zelaieta

Gizarajoa utzi hor lasai
 ez dedin sentitu kinkan.
 Patatak, pipak, gusanitoak
 mahaigainean jarrikan
 gaurko ikasleak zein arraroak
 zareten diot egitan
 noiz ikusi da merendola bat
 bederatzi ta erditan?

GASTEIZ (2014-02-20)

*Bertsolariak: A. Arzallus, A. Martin, S. Colina,
E. Zabaleta, M. Lujanbio eta N. Elustondo*

Gai-emailea: Maialen Kortabarria.

Gasteizko gaztetxean, “Bertsolariak LIBRE” ekimenaren barruan antolatutako saioa.

Iker Pastor eta Jagoba Apaolaza bertsolari arabarrak duela bi urte egindako bertso saio batengatik epaituak izango direla eta, elkartasunez eginikoa.

Bat-batekoaz gain, Xabier Amurizak eta Miren Amurizak bertso zaharrak eta berriak nahastuz egin zuten saioa. Bertso jarriak musikaren laguntzaz kantatu zituzten Manex Agirrek eta Ander Solozabalek, ekimenaren harira idatzitakoak. Eta musikariekin batera estribilloa eta doinua adostu eta bapatean egin zuten Ane Labakak eta Peio Ormazabalek, Beñat Gaztelumendik eta Unai Gaztelumendik eta Erika Lagomak eta Aitor Sarriegik. Eta bukatzeko, musika baseak jarri eta repeatzen jardun zuten Iñaki Viñasprek, Iker Pastorrekin eta Odei Barrosok.

*A. Arzallus-A. Martin-S. Colina-E. Zabaleta
M. Lujanbio-N. Elustondo*

Gaia: San Pedro da Amets. Besteak zeruan sartu nahi dutela eta, zer egin duten berau irabazteko kantatu beharko dute eta San Pedrok, Ametsek, erantzuna eman.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Eguna pasa nekean eta*

N. Elustondo

Aitortuko det urruti dauzkat
 sinesmena ta fedea
 baina batzutan neska zintzoa
 izan daiteke Nerea
 gaurko gaztetxe honetan ere
 ahalegin bat trebea
 begira zintzo ai naiz betetzen
 tabakoaren legea. (bis)

A. Arzallus

Baina neuk ere konplitu behar
 tokatzen zaidan parte
 nahiz eta zintzo beteko zendun
 Gasteiztik hona artea
 alferrik zertan gainditu hemen
 zeruetako atea?
 Erretzekotan onena dezu
 inpernura joatea. (bis)

M. Lujanbio

Ez det ein haurrik, ez det inor hil
 ez obra, ez kontrabando
 ez ezer onik, ez ezer txarrik
 neutroan joan da luzaro
 nere bizitza encefalograma
 linea plano bat zeharo
 zerua mundua bera baino
 okerrago ez da izango. (bis)

A. Arzallus

Giltzari gisa neu jarri eta
halaxe joan zen Jainkoa
Hittler, Mussolini eta Franco
badago raza gaiztoa
hemen lehenago ere hamaikak
pasatu dute aiztoa
lehenago ere sobran daukagu
enzefalograma plano. (bis)

E. Zabaleta

Ametsetako San Pedro degu
zeruetako giltzari
eta ni hona etorria naiz
leku baten eskalari.
Nire izena Eneritz da ta
baina mutila naiz adi
ekarpen latza egin diot nik
sexu berdintasunari. (bis)

A. Arzallus

Tira horrekin ematen dezu
neuk onartzeko neurria
baina tramitatzeko denboraz
zabiltz nahiko bihurria
ez al zenuen zuk ongi letu
paperan letra gorria?
Hil baino bi aste lehenagotik
bialdu behar zan orria. (bis)

S. Colina

Ene San Pedro eskean nator
zeruan kabitu nahian
ta eskaera aspaldi utzi
nizun lainotako mahaian
nik eskeleto itxura daukat
mamu aire bat bisaian
ta hilda nengola esaten zuten
bizirik nengon garaian. (bis)

A. Arzallus

Beraz bizirik zeunden garaian
 dagoeneko hil kanpai
 ta hil ondoren erdi bizirik
 ez al zara egongo ai!
 Alderantzizko funtzio hortan
 ezin da ibili nolanahi.
 Hemen pertsonak onartzen dira
 guk zombirik ez dugu nahi (bis)

A. Martin

Ene San Pedro, San Pedro maite
 Gasteizen hil naiz bertsotan
 eta txoko bat egin nahi nuke
Philadelphia lainotan
 udatan beti ibili bainaiz
 zu omentzeko asmotan
 urtero-urtero beti parranda
 egiten dut Sanpedrotan. (bis)

A. Arzallus

Philadelphia laino artean
 lekutxo bat zeure minez
 ta Sanpedrotan ibili zara
 boleto hartzeko grinez
 baina Gasteizen hil zarela ta
 nago onartu ezinez.
 Zerura ondo iristekotan
 Bilbon hil behar da gutxinez. (bis)

A. Martin

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13o6ns>

Gaia: Epaillearen aurrean jarri eta hala galdetu dizu: “¿Participó usted en la kalejira de Sarraharro pro presos hace dos años?”

Neurria: Hamarreko handia

Doinua: *Hil da Canovas, fuera Canovas III*

Mikro aurrean jartze hutsak du
bere erantzunkizuna
batipat egi osoa bada
esateko daukazuna.
Herrian alde egitea da
guk dugun eginkizuna.
A ze galdera, ze sakontasun
eta ze estuasuna
baina galdetu aurretik ere
badakizu erantzuna.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Ama Birjina Erkudengoa I*

A. Mendiluze

Eskolan hiru ordu pasata
malkotan hainbeste ordu
bere gauza da irakasleei
ezin zaie hartu kargu.
Baina hauraren negar malkoak
ez gaitu hunkitu behar gu
bere bizitzan aurrera egiten
berak ikasi behar du.

M. Lujanbio

Ez dakit geran eskuzabalak
ez dakit geran zuhurak
kontzientzi karga etortzen baitzait
dar-dar egiten dit lurrak.
Baina nahiz eta berekin pasa
gure lan ordu apurak
bizitzan beran zatia dira
mamuak eta beldurrak.

A. Mendiluze

Ta normala da adin horretan
mamu asko ikustea
negar egin ta ikaratzea
petraldu ta zapuztea.
Besten lana da gure haurrari
bidea erakustea
baina geroz ta gehio kostatzen
zaigu eskolan uztea.

M. Lujanbio

Eskolan uzten kosta egiten da
kostako zala argi zan
erabakia haundia da ta
ipini gaitu balizan
zeren akaso hain geurekoiak
ezingo genduke izan
guraso izan ta bizi nahi degu
guraso ez ginala gisan.

A. Mendiluze

Gure bizitza jarraitzea da
gure desio xumea
gurasoari ere zor zaio
halako begiruenen.
Noizbait iritsi behar zuen bai
haurra uzteko unea
ezin da izan bizitza osoan
besoetako umea.

M. Lujanbio

Ta nola izan besoetako
umea baina librea?
Ta nola izan bere buruan
jabea ta sensiblea?
Nola egin guk gure bizitza
ta berak bere bidea?
Ia lortzen degun hirukiaren
oreka inposiblea.

A. Mendiluze

Formula hori inoiz ebatzi
ahalko bagenu, pozik!
Baina ez eskatu arren lortzerik
inork ez daukagun gauzik
Zein da gakoa? Nola asmatu?
Egokiena da kasik
ez egotea nahi duenean
behar duenean baizik.

M. Lujanbio

Beharra eta nahia zer diran
berezitu ahal dezakegu
guk geuk agintzen dugu ta berak
hartuko gaitu eredu
dena da berri ta ikasketa
prozesu baten gaude gu
berak gurekin guk berarekin
denok ikasiko degu.

ATARRABIA (2014-09-20)

*Bertsolariak: A. Arzallus, J. Soto, S. Colina, I. Elortza
eta J. Maia.*

Gai-emailea: Alaitz Rekondo.

Larunbatean arratsaldeko zazpian zen hitzordua Atarrabian, bertso-saio erakargarria antolatu baitzuen IKA euskaltegien koordinakundeak, *Milaka Argi Nafarroan* kanpainaren baitan. Bertsozaleek txiki utzi zuten Kultur Etxeko Gune Eszenikoa; ia 400 entzule bildu baitziren bertan.

A. Arzallus – J. Soto – S. Colina – I. Elortza – J. Maia

Gaia: (Megafoniatik kantua entzuten da. Anje Duhalderen. “Maita nazazu gutxio, goza nazazu gehiago...”).

Neurria: Zortzikoa, handiaren moldekoa, 4 puntuz

Doinua: *Sorlekua utziz gero*

A. Arzallus

Anje Duhalderen kanta
entzun izan dut lehenago
gozatu behar horretan
ni neu ere ados nago
baina euskara oraindik ez da
libratutako berbaro
eta orduan kosta egiten da
maitatzea gutxiago.

J. Soto

Elkartasuna ona da
 bai badauka boterea
 esku ematea ona da
 behin askatzea xedea
 ta bai maitatu eta gozatu
 behar du bakoitzak berea
 baina guk orain ja behar ditugu
 dirua eta legea.

S. Colina

Gozamena, maitasuna
 soka beraren bi alde
 ta euskalduna erdian
 egin nahian bien alde.
 Nik nere hizkuntza beti ikusi dut
 edozein hizkuntzan pare
 ta egin nahi dut gozatu eta
 maitatu beharrik gabe.

I. Elortza

Sarri ta leku askotan
 errepikatu ohi den gai
 euskararen alde noski
 mingaina ez behar beste blai
 berdin-berdin da izan hizkuntza
 izan kirol izan zernahi
 bikotea ere maitatu behar da
 ta larrua jo ere bai.

J. Maia

Beraz zer da bikote bat
 batere musurik gabe
 Euskal Herria ere ez bada
 bere hizkuntzaren lurralde.
 Urik ez bada zimurtuko da
 gure lore ta landare
 baina hobe da euskeraz bizi
 ta ez euskararen alde.

GETARIA (2014-09-26)

*Bertsolariak: M. Amuriza, A. Arzallus, On. Enbeita
eta B. Gaztelumendi.*

Gai-emailea: Uxue Alberdi.

Katukale irakurle taldeak antolatuta bertso jaialdi ederra egin zen ostiralez Getarian. 200 laguneko aretoa ia beteta, biribil joan zen ekitaldia, eta halaxe igarri zen publikoaren erantzunean ere.

B. Gaztelumendi – A. Arzallus
<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13p5so>

Gaia: Aurten ospatu da Elkanoren lehorreratzea. Lau urtez behin egiten da.

Amets izango da Elkano, azken urteotan paper hori egin duena. Utzi egin behar du eta zure esku dago nori eman aukera hori. Semeari eskaini diozu, Beñati, baina honek ezezkoa esan dizu, zure harridurarako.

Neurria: Zortzikoa, handia

Doinua: *Garai bateko baserritarra*

A. Arzallus

Orain artean ni neu izan naiz
ohore haundi horren jabe
zuk badaukazu nahikoa planta
ta baduzu nahiko edade
ume aurpegia duzula eta
ez jarri hain triste, grabe
Elkanorena egin liteke
bizarrik eduki gabe.

B. Gaztelumendi

Gure herrian Elkano dute
 hemen gehienek goraipa
 nahiko zenuke ni aritzea
 zure pausoei jarraika.
 Ba nik ez det nahi bizarrarena
 neretzat aski ez baita.
 Lau urtean behin hori ikusten
 aspertuta nago aita.

A. Arzallus

Beraz ikusten ez zaizu sortzen
 batere inbidirikan
 baina badauka alde polit bat
 esango dizut begitan
 ta gainera arrazoi onena
 oain entzun det belarritan
 parte hartzean ez da izaten
 begiratu beharrikan.

B. Gaztelumendi

Egia da bai parte hartzea
 ez da bere hortan txarra
 baina arropetan eramaten da
 itsasoaren aparra
 eta hain zuzen horixe da nik
 nahiko ez nukeen bakarra
 beti sufritzen ari denaren
 itxura eman beharra.

A. Arzallus

Agertzen gara gu baldres xamar
 agertzen gara bizartsu
 erdi txintxilik arropak eta
 besoak aski gihartsu.
 Hori dela ta zu ez izutu
 eta ez egin amenazu
 ze nahiko normal jantzita ere
 nahiko narratsa zera zu.

B. Gaztelumendi

Zure aldera atera bainaiz
ni aita urterik urte
Elkanorena hainbeste aldiz
gure herrian egin dute.
Nere galdera “Ordea berak
zer esango ote luke?”.
Dagoen lekutik gu ikusita
parra egingo liguke.

A. Arzallus

Ez dakit parre egingo lukeen
ikusiz gure tankera
ultimatum bat emango dizut
hauxe da azken aukera.
Zeure etxean segitzekotan
Elkanon plantan atera
edo bestela joan munduari
buelaren bat ematera.

B. Gaztelumendi

Hegazkineko txartel bat pozik
hartuko nuke opari
bakar-bakarrik ikusi ditut
Zarautz, Zumaia, Getari
baina kontua aldatu behar
belaunaldiz belaundi
arreatxo bat badaukat eta
esan zaiozu berari.

ERRENTERIA (2014-10-25)

*Bertsolariak: J. Maia, A. Arzallus, S. Colina, A. Egaña,
I. Elortza eta M. Lujanbio.*

Gai-emailea: Josu Goikoetxea.

Udalaren babesean Landare Elkartek antolatutako saioa ederra atera zen, Niessen aretoan. Jende asko hurbildu zen, ez zen aulki hutsik ia geratu, eta harrera beroa egin zieten bertsolariei. Hauen ahalegin guztiei sutsu erantzun zieten, eta horrek erraz girotu zuen saioa.

I. Elortza

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13p6v4>

Gaia: Imajinatu egunero bezala goizeko 7etan *Topoan* zoazela Donostialdera. Halako batean, telefonoarekin zoaz, noski, burua altxatu eta denak ikusten dituzu telefono mugikorrarekin. Eta ez dabiltzanak, bekozkoa ilun dutela. Eta jende guztiaren artean pertsona bat ikusi duzu ikaragarritzko irribarrearekin. Eta pertsona hori nor den imajinatzen hasi zara.

Neurria: Hamarreko handia

Doinua: *Aita izena kanta beharrak.*

I.Elortza

Irriparre bat haundia dauka
ta postura segurua
besteok berriz pantaila baten
aurkitu nahirik mundua.
Orduak hala galtzen ditugu
lortu nahirik segundua
behera begira ta irripartsu
begiratuz ingurua
seguruenik hau izango da
Euskalteleko burua. (bis)

Berak dirua poltsikotan du
guk *Smartphona* eskutan
eta Euskaltel gora joango da
noski burtsako puntutan.
Pertsona nola poztu litekeen
ohartu gabe batzutan
derrigor hori izan behar dela
hoixe dabilkit gomutan
edo bestela gosalduta aurretik
bi aldiz egin du larrutan. (bis)

Edo ONCEko kupoia atzo
zeukan berai tokatzeko
edo hil egin zaio gertuko
bat zena gorrotatzeko.
Zer dakit ba nik besterik barik
gaur atzo baino hobeto?
Baina berriro begiratzen dut
besteok gaudela kieto
ta egia esanda asko ez da behar
honi barre egiteko. (bis)

BAIONA (2014-11-15)

XILABako txapeldunaren agurra

S. Colina

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13p81g>

Neurria: Hamarreko handia

Doinua: *Gogoan daukat ez du aspaldi*

Nahiz ez dakidan aski handia den
 zuk guri utzia biltzeko
Txato zuretzat doa txapela
 goizegi baitzen hiltzeko.
 Zuri ohore eta milesker
 bertsozale bihotzeko
 pribilegiatua sentitu bainaiz
 bertso saio bakoitzeko
 ez baitut txapel beharrik izan
 maitatuta sentitzeko. (bis)



Bertsolariak eta Kanariar Uharteko trobadoreak

Hernani, 2014-06-24

Iturria: XDZ

BILBO (2014-12-20)

Bizkaiko txapeldunaren agurra

F. Paia

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13p93s>

Neurria: Hamaseikoa, handiaren moldekoa, 9 puntuz

Doinua: *Nere gorputza dardarka daukat*

Barkatu Txato, Ardatz ta Arkaitz
heriotzaren krudela
barkatu, Manex, Orkatz, Lexuri
gaur ondo irten zait kartzela
barkatu, ama, Xabier ta Itxaso
ta nire lagun tropela.
Kanposantuan zin egin nuen
aitarentzat da txapela
berarengandik asko ikasi
ta jarraitzen dut horrela.
Hiru urte joan zinela
ta hala ere hemen zaudela.
Eta euskeraz eskeintzen dizut
gure artean ez bezela
itsasgizonen zeruan ziur
ikasiko zenuela.

SARIKETAK

AZPEITIA (2014-02-14)

VII. Erniarraitz Sariketa

*Bertsolariak: S. Alkaiza, E. Artetxe, N. Ibarzabal, A.
Iturriotz, J. Oiartzabal, Josu “Xenpelar”
eta N. Zinkunegi.*

Gai-emailea: Gurutze Oiarzabal.

A. Iturriotz

Gaia: Ez zenuen uste, baina bizitzak beste aukera bat eman dizu.

Neurria: Hamarreko handia

Doinua: *Santa Barbara zure bizitza II*

Onkologian ingresatuta
egon naiz hainbeste gauez
bularren neukan minbizia ta
zergatik pasa zen galdez
ibiltzen nintzen ta sendatu naiz
borroka dotore batez.
Alboko oheko neska joan da
bizitzak ein dio ihes
ta ez dakit nork erabaki dun
nork merezi dun ta nork ez. (bis)

Zein gogorra den kimioa hartzen
pasatzea arrastia!
Ta etorkizunak zer dakarren'e
ez jakitea garestia.
Hantxe jardun naiz sendatu arte
ez da izan kontu ezia
baina aurrera irten naiz eta
gaur sentitzen naiz aztia.
Egunez egun kunplutuko det
eiteke dedan guztia. (bis)

Bular bakarraz bizitzeko dut
behar hainbeste motibo:
familikoak maite zaituzte
ze maitasun ta ze giro
jasoa dudan berriro negar
egiten nuen aldiro.
Nola bizitzak aukera eman
didan pozik naiz berriro
bi eskuekin helduko diot
ta ez dit alde egingo. (bis)

GABIRIA (2014-04-12)

43. Osinalde Saria

*Bertsolariak: M. Amenabar, X. Igoa, A. Irastorza,
M. Iturriotz, J. Oiartzabal "Xenpelar" eta A. Salegi.*

Gai-emailea: Eñaut Asurabarrena.

X. Igoa- A. Irastorza

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13pa68>

Gaia: Ama-semeak zarete. Xabi semeak orain arte bere logela emakumeen argazki eta posterrez apainduta eduki du. Gaur ikusi du amak posterrak kendu eta gizonezkoenak jartzen.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Nafarroako mendi gainetan*

A. Irastorza

Gizarte hontan mila komeri
izaten dira nolanahi
lehen neska batzuk poster batzutan
eta zeunden oso alai
orain mutilak jarri dituzu
eta egon zaitez lasai
neskak jarrita gustora nengon
ta mutilekin ere bai. (bis)

X. Igoa

Lehen Claudia Schiffer, Penelope Cruz
Eva, Sonia ta Mara
ta amak ondo hartu ez du ba
nire aldaketa hara!
Mutil katxarro gihartsu batzuk
doaz orain paretara
zuk benetako nire argazkia
ikusteko garaia da. (bis)

A. Irastorza

Nik egunero ikusten zaitut
 hemen da adibidea
 gizarte honek milaka traba
 ezer ez dago librea.
 Nahiz gotzain batzuk ta radikalek
 baduten mila idea
 hemen norberak egin behar du
 berak nahi duen bidea. (bis)

X. Igoa

Oso polita eta errexa
 da amaren metafora
 baina gotzaiek ta radikalek
 jarri digutenez froga
 bide horixe gerta liteke
 sarritan aldapa gora
 zure eskutik egiten badut
 errexago izango da. (bis)

A. Irastorza

Errezagoa izango dela
 hori ezin da ukatu
 eta jakizu seme maitea
 mundua ez da bukatu.
 Hemen ez dago ezer txarrikan
 zure barrenak askatu
 hurrengo urratsa eman ezazu
 eta aitari kontatu. (bis)

X. Igoa

Aitak badauka herrian behintzat
 radikal xamarran fama
 ta beraz bildur pixka batekin
 noa aizu beragana
 baina zuk ontzat eman baduzu
 errezagoa da lana.
 Laguntzearren hor egotearren
 mila esker bihotzez ama. (bis)

A. Irastorza- J. Oiartzabal “Xenpelar”

Gaia: Udaberria ailegatu zaigu eta Aitor emozionatuta dago dauzkan loreekin. Xenpelar, parrandatik bueltan, lore artean pixa egiten harrapatu du.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Dama gazte xarmant bat*

A. Irastorza

Behingoz aurten ez nula
lore eskasia
pixarekin nengoen
nazkatzen hasia
kamara bat daukat hor
ez daukat ahantzia
hogeita hamabost euro
da zure grazia. (bis)

J. Oiartzabal “Xenpelar”

Nahi nuen ta lotsatu
naiz zu agertzean
nola agertu zeran
tamalez atzean
baina errespetuan
behar dan antzean
lasai txahala egingo det
arbola atzean. (bis)

J. Oiartzabal “Xenpelar”

Hori hitz egiteko
ez al dago? Tira!
Geratu naiz hementxe
lorei begira
pixa egin diot bai
behar zen neurrira
hurrengoan gehiago
haziko baitira. (bis)

A. Irastorza

Txahala egingo dezula
diozu hurrena
nik jarri behar dizut
punturik onena
orain etorriko da
ai zure kondena:
nere emazteari
kontaiozu dena. (bis)

A. Irastorza

“Gehio haziko dira”
zure umorea
baina iluna dugu
gure kolorea.
Pixa egin dezu ta
esango’t ordea
kaka egin bazenu
abonu hobea.

J. Oiartzabal “Xenpelar”

Beraz eskatu dezu
berai kontatzeko
bai esan zaiozu zuk
hona etortzeko.
Gaztea nago eta
itxura antzeko
berakin moldako naiz
agian hobeto. (bis)

ETXARRI ARANATZ (2014-05-10)

Euskal Herriko V. Bertso Afari txapelketa

*Bertsolariak: S. Alkaiza, O. Arbina, O. Barroso,
B. Gaztelumendi, E. Gorosterrazu, A. Illaro, A. Karrika,
O. Lakuntza, E. Lazkoz, I. Mendiguren, X. Murua,
A. Solozabal, J. Soto, M. A. Txoperena, J. Uria,
I. Viñaspre eta E. Zabaleta.*

Gai-emailea: Joseba Beltza.

B. Gaztelumendi

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13pb8k>

Gaia: Abortatzea erabaki duen emakume gaztea zara. Azkenaldiko manifestazioek hunkitu zaituzte.

Neurria: Hamarreko handia

Doinua: *Amodioa gauza tristea*

Ustekabean pasa zitzaidan
ni ez nengoen horren zai
gau ero baten liatu ginen
ta ez nintzen gelditu lasai.
Abortatzea pentsatu nuen
famiak ez zuen nahi.
Politikoak dira guztiaz
iritzia emateko gai
baina gorputza nerea da ta
erabakia ere bai.

Gero kalean ikusi ditut
nere antzerako franko
esaten zuten joan zirela
diktadura eta Franco
baina oraindik ez degu egin
moraletikan eskapo.
Haien legeak geratu bitez
nere gorputzetik kanpo
nere eskutan dagoen gun
libre bakarra delako.

A. Illaro-J. Uria

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13pcb0>

Gaia: Jone, gaur ezkonduko zara. Arrate lagunak gaur aitortu nahi
dizu zugatik sentitzen duen maitemina.

Neurria: Bederatzikoa, handiaren moldekoa, 6 puntuz

Doinua: *Iparragirre abila dela*

A. Illaro

Jone heldu da egun handia
itxaron duzu luzaro
orduak doaz atzera eta
botako dut ta akabo!
Lagun bezala edo
Jone naukazu ero
enamoratuta nago
zure mutila bezala ez dakit
agian pixka't gehiago. (bis)

J. Uria

Orain artean ez al dugu ba
ia astero afaldu?
Ta gaur artean ez didazu ba
horrelakorik azaldu.
Ta gaur zen momentua
gaur arte sekretua
esan behar dizut ondradu:
Arrate maite ez da egia
inoiz ez dela berandu. (bis)

A. Illaro

Ai zenbat egi irteten diren
ezkontzarako katean!
Zuk ere zerbait bota didazu
oraintxe gaude bakean.
Betidanik lagunak
minak eta kutunak
ta atera da bapatean
ze alde dago lagunak eta
maiteminduen artean? (bis)

J. Uria

Nabaritzen da diferentzia
ez dela bera biontzat
baina niri ez dit zuri bezela
hori esaten bihotzak.
Sentitzen dut bestela,
ai ama ze pastela!
Orain nolako morrontzak
zerbaitegatik ez zaizkit niri
inoiz gustatu ezkontzak. (bis)

A. Illaro

Txiki-txikitan bertso eskolan
hasi ginen eta hala
ezezagunak lagun minak be
bilakatu berehala.
Pasatu da denbora
ta ezkontzeko moda
ulertzen dut da normala.
Ezkondu zaitez baina ez ahaztu
asko maite zaitudala. (bis)

J. Uria

Laguntasun hau urte luzetan
edukitzea ze luxu
eta ze traba ni altarera
nindoala pausuz pausu.
Baina ze kristo hara!
Har zazu besarkada
ta benetako bi musu
lagun izaten segiko dugu
hala nahi baldin baduzu.(bis)



Ahoa Bete Hots jardunaldiak

Amasa-Villabona, 2014-07-03

Iturria: XDZ

Julio Soto – Oier Lakuntza

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13pddc>

Gaia: Bikiak zarete. Zuen ustez ezberdinak zarete, baina denek nahasten zaituztete. Nekatzen hasiak zarete.

Neurria: Bederatzikoa, handiaren moldekoa, 6 puntuz

Doinua: *Iparragirre abila dela*

Oier Lakuntza

Jende guztiak dauzka nahasketak
ia ez zaizkit atseginak
nolatan dugu altura bera
ta biok begi urdinak.
Gu berdinak garela
esan ohi digutela
ta nire ulertu ezinak
nolatan garen horren berdinak
eta horren ezberdinak. (bis)

Julio Soto

Zapaburutxo bat iritsi zen
obuluaren aldera
ordutik denak dute zalantza
ordutik denak galdera.
Neri “Oier adio “
zuri “Kaixo Julio”
ta ziztada sabelera
ia pentsatu dut kartel batekin
ateratzea kalera. (bis)

Oier Lakuntza

Zugan pentsatze hutsarekin nik
badut nahiko paranoia
niretzat beti beheko zuloa
eta zuretzako goia.
Ni beti nahiz azkena
ta zu berriz aurrena
ta beti holako sasoia
ni horren ona izanik nola
zara zu horren kabroia? (bis)

Julio Soto

Matematikan oso txarra naiz
zu zaran bezela trebe
fisikan berriz ni oso ona naiz
zuk ez Newton ta ez lege.
Izatea berdinak
biak begi urdinak
ni zure eta zu nere
batzutan kalte egiten digu
baina batzutan mesede. (bis)

Oier Lakuntza

Ta garenera ohitu beharra
daukagu dagoeneko
garenai ihes iten hastera
bailitzateke kalteko.
Gaur daukazu aukera
esango dizut zera...
eskaera bat hasteko
behintzat utzi nei gaur irabazten
bai bakeak egiteko. (bis)

Julio Soto

Bale zuk segi helmugaraino
ta helmugara iritsita
utziko dizut irabazten ta
gogoratu gaurko zita.
Itxiak, irikiak
gara anai bikiak
batzutan nahiko bitxi-ta
indartsuago sentitzen gara
itzal batekin bizita. (bis)

AZKOITIA (2014-05-10)

Azkoitiko I. Kopa

*Bertsolariak: E. Abasolo “Abarkas”, A. Agirre,
E. Artetxe, E. Arzallus, N. Elustondo, E. Fernandez,
I. Ibarra, B. Lizaso, I. Mantzizidor “Mantxi”, J. Martin,
J. Oiartzabal “Xenpelar”, O. Perea, B. Ugartetxea,
J. Uranga, I. Urdangarin eta F. Zubia.*

Gai-emaileak: S. Etxaniz, H. Etxeberria “Ministro” eta A. Iriondo.

B. Lizaso - O. Perea

Bakoitzari hitz bat eman eta hura defendatu, argudiatu... behar du,
eta besterena gainditu.

B. Lizaso: Mikrofonoa

O. Perea: Isiltasuna

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Basatxoritxu mokoluzia*

B. Lizaso

Mikrofonoak martxan jartzean
badauka hainbat bertute
sortu zirela izango dira
nik ez dakit zenbat urte!
Oholtza batean jende aurrean
lasaitasunaren truke
bertsolariek nere babesa
ederki eskertzen dute.

O. Perea

Mikrofonoan aurrean egon
eta sarritan trantzea
onartzen dizut sortzen duela
barrenean engantxea
baina askatu ezin baitugu
mingaina edo etxea
iruditzen zait hobea dela
mikrofonoa itzaltzea.

B. Lizaso

Mikrofonoan aurrean norbait
badago borondateko
txikia ere hazi ohi denez
nere babesa tarteko
mikrofonoan hotsa aski da
isiltasuna hausteko
ta zuk ez dezu nahikoa indar
neri aurka egiteko.

O. Perea

Mikrofonoa piztu aurretik
barruan duzu dizdira
ahotsa altxatu eta mezua
helduko da urrutira
baina Lizaso ez zaite harrotu
ta lasaitu zaite tira!
Batzu-batzutan ixilik ere
gauza asko esaten dira.

B. Lizaso

Isiltasunak nahiz eta sarri
egiten digun mesede
ahots ozena baldin badezu
hitz egin ezkerre trebe
ahal den altuen hitz egitea
eta zalantzarik gabe
orduan garbi entzungo zaitu
entzun nahi ez dunak ere.

O. Perea

Askotan ez naiz ni neu isilik
be gelditzeko kapaza
mikrofonoan sarri hartzen dut
sardiñera baten traza.
Baina saioa amaitu dugu
ta bagoaz gure kaxa
isiltasuna hasiko da ta
hartuko dugu arnasa.

J. Uranga-B. Ugartetxea

Bakoitzari hitz bat eman eta hura defendatu, argudiatu... behar du,
eta besterena gainditu.

Jokin: Malkoa

Beñat: Begirada

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Uso zuri bat inguratu zait A*

J. Uranga

Gustokoren bat jotzen badugu
egunen batean begiz
ta berak uko egin ezkeru
beti gaude pena handiz.
Zuk zoriona lor zenezake
irriparrez egin diz-diz
ez det ulertzen zergatik sortzen
nauzun horrenbeste aldiz?

B. Ugartetxea

Galdera hori erantzutea
ez daukat batere errez
ze pertsona den ze egoera den
kakoa hor dago berez.
Funtzionamendu berdina dugu
parrezka edo negarrez
zu gabe ni nor izan naiteke
ostera zu ni gabe ez.

J. Uranga

Begirada bat tarteko bada
hainbeste atarramendu
sor bailiteke gero ezin da
masail bietatik kendu.
Banoa hemendik ahal bada urruti
aurpegietatik aldendu
ni aspertu naiz jendeai sortzen
horrenbeste sufrimendu.

B. Ugartetxea

Irriz tarteka irteten zara
jendearentzat mesede
nahiz txarrerako zoritxarrear
daukazun mila botere
bion artean garbi ikusten da
gaur ni naizela errege
nik funtzioa bete nezake
begiak itxita ere.

J. Uranga

Ta uste al dezu gaur hori dela
malko batentzat kondena?
Ni azaltzera noakizu gaur
pentsatu ohi dudana:
jakin ezazu zu soilikan ez
zera hori ahal dezakeena
begiak ixten dituztenean
ateratzen naiz gehiena.

B. Ugartetxea

Baina aterako ez bazinake
segurenik hobeto
adibide bat jarri nahi nuke
nik orain nabarmentzeko:
kleenex-a ere izaten dugu
sarri gu biok tarteko
ni garbitzeko erabiltzen da
eta zu desagertzeko.

I. Ibarra-Mantxi

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13pefo>

Bakoitzari hitz bat eman eta hura defendatu, argudiatu... behar du,
eta besterena gainditu.

Iratxe: Egunsentia

Mantxi: Gaua

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Euskal Herriko neska pollitak*

I. Ibarra

Adibide bat, hasi gaitezen
taberna batean sartzen.
Hamaika gazte ahaleginduz
ahal bada zeozer ligatzen.
Lortu dabenak gabea doaz
ahal bada alkar gozatzen
ta noski nigaz hasi ohi dira
zure arrastoak ulertzen. (bis)

Mantxi

Nahiz tabernetan nahiz tailerretan
hor dabiltzan erdi sator
egunsentian alde hizketan
zer zabiltza hain egoskor?
Elkartzen geran uneak dauka
egiazko magia hor
ta ze egunsenti da polita
iluntzetik ez badator? (bis)

I. Ibarra

Sarri gustora emon deusagu
biok alkarri lastana
nigan amaitzen baita sarritan
zurekin hasia dana
batzuk ohean besteak barriz
helduz kaleetan barna
ta noski ligatu ez dabenak be
gogotsu datoz nigana. (bis)

Mantxi

Baina guztia ez da ligen
kontua horren nabarmen
hemen argitu nahi degu ea
karga gehiago nork duen
ta Lazkao Txiki ekarriko det
bertso hontan eta amen!
Zuri botatako bertso haiek
gauez pentsatu zituen. (bis)

I. Ibarra

Lazkao Txiki be ahalegintzen zan
gaurko gazte askoren trazan
bertsoa eukan beti buruan
bertsoa beti arnasan.
Halan da guzti geratu ohi zan
azkena tabernan, plazan
Lazkao Txikin egunsentiak
hain onak ez ziren izan. (bis)

Mantxi

Egunsentia ze polita den
denok dakizue edo
gauez ordea sortzen ditugu
magia eta endredo
ta gu gaur gaitzat jarri gaitunak
makala behar du gero!
Diskusio hau eukitzen degu
egunero-egunero. (bis)



Bertsoa Unibertsitatean tailerra

Donostia, 2014-07-08

Iturria: XDZ

E. Fernandez-J. Martin

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13pfi4>

Bakoitzari hitz bat eman eta hura defendatu, argudiatu... behar du,
eta besterena gainditu.

Fernandez: Zigorra

Martin: Musua

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Goizian goizik jaiki ninduzun I*

E. Fernandez

Etor naiteke modu urtsuan
ta etor naiteke lehor
etor naiteke modu arinean
ta etor naiteke gogor
baina halere azaldu nahi dut
ongi, ongi eta jator
muxu bat hobe sentitzen dela
ni aurretikan banator.

J. Martin

Izan liteke lapurtu den bat
edo muxu iheskorra
lizunkeriaz bustia edo
agurretako lehorra
baina biek bat egiten dute
harreman batean horra:
ezpain berdinek luzatzen dute
muxua eta zigorra.

E. Fernandez

Ezpain berdinek sor dezakete
aipatu duzu aurrena
arrazoi osoz ta indar osoz
hori kontatu hurrena
baina nik orain erranen dizut
sarritan gertatzen dena:
sarri muxua izaten dela
baden zigor haundiena.

J. Martin

Zigorra izan liteke baina
ez da zigor garestia
gure gurason heziketa're
ez zen batere ezitia:
paretan beira liburuekin
eta pare bat ostia.
Injustua da zigorren bidez
ikasitako guztia.

E. Fernandez

Dena polita, dena ederra
nahi duzu sinistarazi
baina etorri gaurko mundura
ta gauzak konpontzen hasi.
Gaur bizi dugun realitatea
ezin dugu inola ahantzi
ta muxuen bidez aizu Jon maite
ezin da dena ikasi.

J. Martin

Dena ezin da muxuz ikasi
baina ezta ere egurrez
fedekontua aipatu nahi dut
zeruz bezelaxe lurrez
pertsone asko ikusi ditut
oso fededunak aurrez
Jaungoikoaren oinei muxuka
bere zigorren beldurrez.

A. Agirre-F. Zubia

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13pgkg>

Gaia: Eskolako bi ume dira Amaia eta Felix. Gaur arma erakustaldi bat egitera joan dira bertara poliziak. Amaia oso pozik dago horrekin. Felix ez.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Nere senarrarekin I*

A. Agirre

Ikasteko egingo det
hamaika ahalegin
aitak zigortu eiten nau
eta amak berdin.
Eta beraien builak
ez ditut atsegin
ta ezin kontra egin
ur pistolarekin. (bis)

F. Zubia

Beste norbaiten kontra
nola ta zer joka?
Porrak gogor astindu
ta pelotak bota.
Galdera bat zureztat
ze defentsa mota?
Noiztik da pertsonala
beste baten kontra? (bis)

F. Zubia

Indarra lortzea da
zure helburua
munduko konponbide
noiztik da gudua?
Amaia duten antza
gauza segurua
He-manen gorputza ta
eltxoen burua. (bis)

A. Agirre

Hau mutil motza al da?
Tira, tira, tira!
Nunbait ulertu ez ta
hauxe komeni da.
Pertsona babesten det
gorputza guztira
eskerrak denak ez gean
ein zure neurrira. (bis)

A. Agirre

Zortzi urte ditugu
ez da berriketa
telebista aurrean
maiz belztu kopeta
mutilek ere noiznahi
guganako iseka
defentsa pertsonala
ikasten da eta. (bis)

F. Zubia

Neronek bizia da
neure panoraman
aitari hauek porra
jarri atzo saman
goizeko ordu bitan
ta etxeko draman
ta guztiz urrutira
zidaten eraman. (bis)

BERRIATUA (2014-06-27)

Berritxu saria

*Bertsolariak: T. Altube, A. Galarza, J. A. Iriondo,
J. Larrinaga, U. Mendiburu, A. Rubio, A. Servier
eta A. Urbieta.*

Gai-emailea: Imanol Aldazabal.

J. Larrinaga-A. Servier

Gaia: Herriko ezagunak zarete. Bakoitza bere aldetik, non aurkituko eta Madrilgo gai eta lesbianen manifestaldian.

Neurria: Zortziko handia

Doinua: *Haurtxo txikia negarrez dago I*

A. Servier

Hemen sortu naiz hemen bizi naiz
ni naiz berritxuar peto
orain artean baina ez naiz bizi
herrian ezin hobeto
izaten diren txantxa guztiak
eta irainak tarteko
tristea da hona heldu beharra
armairutik irteteko.

J. Larrinaga

Herri txikitan aditzen dabe
sarri askotan ertzetik
holako egi naturala eza
eta jarraituz atzetik.
rmairutik ez gu biok harro
urtengo gara etxetik
bueltan goazenean astelehenean
hasiko gara hutsetik.

A. Servier

Asteburuan gelditu gara
Madrilen manifestatzen
eskubideak ta onarpena han
ahotan aldarrikatzen
baina jadanik itxaropena
Jone hemendik pasa zen
urtean degu egun bakarra
ta ez da ezer aldatzen.

J. Larrinaga

Ezer ez dala aldatzen orain
esan deustazu apropos
ta sentitzen dot baina ez nago
ni zure berbakaz ados.
Guk ein beharko dogu aurrera
gu orain beldurrez gagoz
baina alkarregaz azaldu geinke
Berritxu aldau dala aroz.

A. Servier

Hemengo atsoen txutxumutxua
isiltzeko beharbada
elkarri eskutik helduz atera
behar genuke plazara.
Egun osoan aldarrikatzen
pozarren aritu gara
beste gauzarik ez dut eskatzen:
emaidazu besarkada.

J. Larrinaga

Gaur ez biher be emongo deustut
ezin zan izan bestala
eta plazara urtengo gara
bikote baten bezala
txarto aditu gure dauenak
txarto aditu dezala
egunen baten ulertuko da
hau be maitasuna dala.

ZARAUTZ (2014-09-05)

38. Lizardi Saria

*Bertsolariak: A. Lasarte, J. Gurrutxaga, A. Igartzabal,
I. Irazustabarrena, A. Iturriotz eta A. Labaka.*

Gai-emailea: Felix Zubia.

A. Lasarte – A. Labaka

Gaia: Bikotea dira Arnaitz eta Ane. Arnaitzek gaur eraman du Ane lehen aldiz etxera gurasoak ezagutzera. Afaltzen hasi dira, baina Anek ez du ezer jaten.

Neurria: Zortziko txikia

Doinua: *Kantatzera nioa*

A. Lasarte

Babarrunak hor zeuden
goizez irakiten
tripakiak ez dira
horren gaizki irten.
Zu hala're jan gabe
zaude astakirten
ikasi ezazu behintzat
itxura egiten. (bis)

A. Lasarte

Haragia jarri du
ta goxo-goxoa
ta hori zuretzako
dezu arazoa.
Ezautu nahi badezu
famili osoa
ama konbentzitzea
da lehen pausoa. (bis)

A. Labaka

Lauak eseri gera
gustora mahai baten
odolkia, txoixua
errez da esaten
zure ama ari zait
pelmada ematen.
Esan nizun ez nula
haragirik jaten. (bis)

A. Labaka

Zure ama gustora
daukat nik mutiko
nerekin gaur ez baita
agertu kritiko.
Hizketan hasi eta
irripar bat kitto!
Lehenago ez zenitun
asko ekarriko. (bis)

A. Lasarte

Ni neska askorekin
naiz hemen egona
Arnaitzen gaitasunak
badu eta sona.
Nahiz bi platerek sortu
arazo sakona
etxe hontan postrea
izaten da ona. (bis)

A. Labaka

Nere aurrean daude
hor hiru aingeru
etxeko sukaldea
bihurtu da zero.
Nahi badezu postrea
probau dezakegu
eta gero musean
egingo al degu? (bis)



Bertsulari Ttipi Eguna

Larzabale, 2014-05-16

Iturria: XDZ

ERRENTERIA (2014-12-08)

22. Xenpelar Sariketa

*Bertsolariak: M. Akizu, M. Arregi, N. Ibarzabal,
A. Labaka, A. Lasarte eta A. Servier.*

Gai-emailea: Haritz Casabal.

M. Arregi

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13phms>

HITZA EMANDA

Hitza: Indarra

Neurria: Hamalaukoa, txikiaren moldekoa, 9 puntuz

Doinua: *Horra sei bertso kale*

Herri hau inoiz ez da
izango koldarra
eta borrokatzeko
badu beharra.
Nahiz ta ez den horretan
dirauen bakararra
borrokan hemen dabil
jendea barra-barra.
Gorri den izarra
da gure iparra
nahiz bide azkarra
askotan den txarra
ondo erabil dezagun
gure indarra. (bis)

N. Ibarzabal

<http://bdb.bertsozale.eus/web/bertso/view/13pip8>

KARTZELAKO LANA

Gaia: Nazkatuta zaude zoazen tokira zoazela denak zuri begira edukitzeaz.

Neurria: Hamarreko handia

Doinua: *Santa Barbara zure bizitza II*

Berdin du joan titi tarte
tapauta nahiz erakusten
badira zenbait begi ez dutenak
ni lasai bizitzen uzten
euren asmoak senti ditzaket
euren burutan gorpuzten.
Egoera hau ez duenari
sinesten edo ikusten
esango diot begiradek be
badakitela biluzten. (bis)

Jada berdin du kalean gauez
nahiz tabernan gurutzatu
hainbat mutilek ohi gaituzte gu
ixiletik begiratu
ta ezer egiten ez dutenez gu
ezingo gara kexatu
gero gainera “*Guapa*” ta “*Guapa*”
digute bai oihukatu.
Zuen iritzia gorde ezazue
ez badizuet eskatu. (bis)

Oharkabeen neska guztioi
 babes baten bila dabiltz
 hezi beharrean gure mutilak
 txiki-txikitatik berriz.
 Hemengo denok bizitzan dugu
 holakoa mila aldiz
 eta guztiek egingo zuten
 mila kexu ta mila hitz
 mutil ta neskon egoera hau
 alderantziz izan balitz. (bis)



Euskal Herriko Eskolarteko Bertsolari Txapelketa

Orio, 2014-06-21

Iturria: XDZ

SAIOEN AURKIBIDEA

or.

AJANGIZ (2014-01-03)	61
X. Amuriza eta J. Maia.	
OÑATI (2014-01-05)	64
A. Arzallus, M. Lujanbio, A. Sarriegi, S. Colina, B. Gaztelumendi, A. Mendiluze, U. Iturriaga eta I. Elortza.	
ERRATZU (2014-01-18)	72
Julio Soto, Agin Laburu eta Jon Maia.	
TOLOSA (2014-01-18)	75
I. Elortza, J.M. Irazu, A. Egaña, J. Maia, M. Lujanbio eta A. Arzallus.	
DONOSTIA (2014-01-25)	81
M. A. Txoperena, I. Gurrutxaga, A. Arzallus, N. Elustondo, M. Lujanbio, B. Gaztelumendi, I. Elortza, A. Agirreazaldeggi, U. Alberdi, S. Alkaiza, R. Lazkano eta On. Enbeita.	
ANDOAIN (2014-02-09)	83
A. Mendiluze, M. Lujanbio, U. Agirre, A. Martin, A. Sarriegi, B. Gaztelumendi.	
BERGARA (2014-02-09)	88
A. Arzallus, M. Lujanbio, I. Elortza, S. Colina, A. Sarriegi, A. Egaña, J. Maia, U. Iturriaga.	
ZARAUTZ (2014-02-14)	92
Mantxi eta A. Arzallus.	
ARRASATE (2014-02-18)	95
A. Elexpuru, P. Castillo eta J. Zelaieta.	
GASTEIZ (2014-02-20)	98
A. Arzallus, A. Martin, S. Colina, E. Zabaleta, M. Lujanbio eta N. Elustondo.	
MUTILOA (2014-02-28)	103
A. Egaña, I. Murua, S. Lizaso eta A.M. Peñagarikano.	
USURBIL (2014-03-06)	107
A. Martin, A. Labaka eta M. Amuriza.	
HERNANI (2014-03-07)	110
E. Pagola, U. Alberdi, A. Agirreazaldeggi eta On. Enbeita.	
ORMAIZTEGI (2014-03-08)	116
A. M. Peñagarikano, J.M. Irazu, J. Uria, A. Agirre, S. Colina eta N. Elustondo.	
BERRIZ (2014-03-14)	118
M. Amuriza, U. Alberdi, On. Enbeita eta A. Martin.	
DONOSTIA (2014-03-15)	123
J. Maia, B. Gaztelumendi, A. Barandiaran eta M. Amuriza.	

DONIBANE GARAZI (2014-03-21)	125
S. Colina, O. Barroso, M. Sarasua eta X. Alkhat.	
GERNIKA-LUMO (2014-03-23)	129
M. Amuriza, E. Lekue, A. Estiballes, F. Paia, I. Ibarra, U. Iturriaga, O. Bartra, On. Enbeita eta X. Amuriza.	
AZKOITIA (2014-03-27)	131
A. Egaña, M. Lujanbio, A. Arzallus, J. Uranga.	
AZKAINE (2014-03-30)	132
A. Egaña eta A. Karrika.	
BERGARA (2014-04-11)	134
M. Lujanbio, J. Maia, A. Agirre, N.Elustondo, I. Zubeldia eta A. Egaña.	
LASARTE-ORIA (2014-04-21)	137
X. Maia, I. Garro, E. Fernandez, A. Labaka, U. Muñoa eta B. Iguaran.	
ZUMAIA (2014-04-25)	140
U. Agirre, A. Laburu, S. Lizaso, A. Egaña, A. Mendiluze eta U. Alberdi.	
LA PUEBLA DE LA BARCA (2014-05-03)	147
A. Arzallus, M. Lujanbio, I. Elortza, O. Arreitunandia eta I. Viñaspre.	
DONOSTIA (2014-05-04)	151
U. Agirre, A. Martin, A. M. Peñagarikano eta U. Iturriaga.	
ELGETA (2014-05-24)	156
U. Iturriaga, I. Elortza, M. Lujanbio eta S. Lizaso.	
ANOETA (2014-06-20)	157
U. Alberdi, M. Amuriza, I. Elortza, A. Martin, A. M. Peñagarikano eta I. Zubeldia.	
ANDOAIN (2014-06-24)	162
A. Agirre, P. Etxeberria, S. Lizaso, J. Maia, A. Mendiluze eta I. Zubeldia.	
LASARTE-ORIA (2014-06-29)	163
A. Agirre, A. Arzallus, A. Egaña, P. Etxeberria, B. Gaztelumendi eta A. Labaka.	
MUNGIA (2014-06-29)	167
S. Colina, A. Egaña, E. Lekue eta J. Uria.	
OÑATI (2014-06-29)	168
E. Aizpuru, J. Martin, A. Oiartzabal eta E. Zelaia.	
GETXO (2014-07-09)	172
A. Arzallus, A. Egaña, M. Lujanbio, J. Maia, F. Paia eta J. Uria.	
DONOSTIA (2014-07-10)	179
M. Lujanbio eta U. Iturriaga.	

IRUÑEA (2014-07-11)	185
S. Colina, A. Arzallus, J. Barberena eta J. Zelaleta.	
ELIZONDO (2014-07-25)	188
U. Alberdi, S. Colina, A. Estiballes, eta A. Sarriegi.	
ALTZO (2014-07-31)	191
A. Arzallus, B. Gaztelumendi, M. Lujanbio, A. Martin, A. Mendiluze eta A. M. Peñagarikano.	
AIA (2014-08-07)	194
A. Arzallus, A. Egaña, B. Gaztelumendi, S. Lizaso, M. Lujanbio, eta I. Zubeldia.	
LEITZA (2014-08-13)	196
U. Agirre, E. Lazkoz, A. Mendiluze eta J. Uria.	
BILBO (2014-08-21)	200
J. Soto, U. Alberdi, E. Lekue eta A. M. Peñagarikano.	
LAUDIO (2014-08-29)	204
U. Alberdi, O. Bartra, A. Agirreazaldegi eta J. Uria.	
LEZO (2014-09-15)	209
A. Arzallus, A. Egaña, S. Lizaso eta M. Lujanbio.	
ATARRABIA (2014-09-20)	212
A. Arzallus, J. Soto, S. Colina, I. Elortza eta J. Maia.	
GETARIA (2014-09-26)	214
M. Amuriza, A. Arzallus, On. Enbeita eta B. Gaztelumendi.	
ERRETERIA (2014-10-25)	217
J. Maia, A. Arzallus, S. Colina, A. Egaña, I. Elortza eta M. Lujanbio.	
BAIONA (2014-11-15)	219
S. Colina	
BILBO (2014-12-20)	220
F. Paia	

BAT-BATEKO SARIKETAK

AZPEITIA (2014-02-14)	222
S. Alkaiza, E. Artetxe, N. Ibarzabal, A. Iturriotz, J. Oiartzabal, Josu “Xenpelar” eta N. Zinkunegi.	
GABIRIA (2014-04-12)	224
M. Amenabar, X. Igoa, A. Irastorza, M. Iturriotz, J. Oiartzabal “Xenpelar” eta A. Salegi.	
ETXARRI ARANATZ (2014-05-10)	227
S. Alkaiza, O. Arbina, O. Barroso, B. Gaztelumendi, E. Gorosterrazu, A. Illaro, A. Karrika, O. Lakuntza, E. Lazkoz, I. Mendiguren, X. Murua, A. Solozabal, J. Soto, M. A. Txoperena, J. Uria, I. Viñaspre eta E. Zabaleta.	
AZKOITIA (2014-05-10)	233
E. Abasolo “Abarkas”, A. Agirre, E. Artetxe, E. Arzallus, N. Elustondo, E. Fernandez, I. Ibarra, B. Lizaso, I. Mantizidor “Mantxi”, J. Martin, J. Oiartzabal “Xenpelar”, O. Perea, B. Ugartetxea, J. Uranga, I. Urdangarin eta F. Zubia.	
BERRIATUA (2014-06-27)	243
T. Altube, A. Galarza, J. A. Iriondo, J. Larrinaga, U. Mendiburu, A. Rubio, A. Servier eta A. Urbietia.	
ZARAUTZ (2014-09-05)	245
A. Lasarte, J. Gurrutxaga, A. Igartzabal, I. Irazustabarrena, A. Iturriotz eta A. Labaka.	
ERRENTERIA (2014-12-08)	247
M. Akizu, M. Arregi, N. Ibarzabal, A. Labaka, A. Lasarte eta A. Servier.	

BERTSOALDI HAUTATUAK

CDan eta <http://bdb.bertsozale.eus>

PLAZAZ PLAZA

1.	2014-01-05	OÑATI	S. Colina eta A. Sarriegi
2.	2014-01-05	OÑATI	A. Sarriegi eta M. Lujanbio
3.	2014-01-18	ERRATZU	A. Laburu eta J. Soto
4.	2014-01-18	ERRATZU	J. Soto
5.	2014-01-18	TOLOSA	J. M. Irazu, M. Lujanbio, I. Elortza, J. Maia, A. Arzallus eta A. Egaña
6.	2014-01-18	TOLOSA	A. Arzallus eta A. Egaña
7.	2014-02-14	ZARAUTZ	A. Arzallus eta Mantxi
8.	2014-02-20	GASTEIZ	A. Martin
9.	2014-03-06	USURBIL	A. Martin, A. Labaka eta M. Amuriza
10.	2014-03-08	ORMAIZTEGI	J.M. Irazu eta N. Elustondo
11.	2014-03-14	BERRIZ	On. Enbeita
12.	2014-03-14	BERRIZ	U. Alberdi eta M. Amuriza
13.	2014-03-15	DONOSTIA	M. Amuriza eta B. Gaztelumendi
14.	2014-03-27	AZKOITIA	M. Lujanbio eta A. Egaña
15.	2014-04-11	BERGARA	I. Zubeldia eta J. Maia
16.	2014-04-25	ZUMAIA	A. Laburu
17.	2014-05-04	DONOSTIA	U. Agirre eta A. Martin
18.	2014-05-04	DONOSTIA	U. Agirre
19.	2014-05-04	DONOSTIA	U. Agirre eta U. Iturriaga
20.	2014-06-20	ANOETA	U. Alberdi eta A. Martin
21.	2014-06-24	ANDOAIN	I. Zubeldia eta A. Agirre
22.	2014-06-29	LASARTE-ORIA	P. Etxeberria
23.	2014-07-09	GETXO	M. Lujanbio eta A. Egaña
24.	2014-07-09	GETXO	A. Arzallus, A. Egaña, M. Lujanbio, J. Maia, F. Paia eta J. Uria.
25.	2014-07-10	DONOSTIA	M. Lujanbio eta U. Iturriaga
26.	2014-07-10	DONOSTIA	M. Lujanbio
27.	2014-07-11	IRUÑEA	S. Colina, A. Arzallus, J. Barberena eta J. Zelaieta
28.	2014-07-31	ALTZO	A. Mendiluze, M. Lujanbio eta A. Martin
29.	2014-08-07	AIA	S. Lizaso eta I. Zubeldia
30.	2014-08-13	LEITZA	A. Mendiluze eta U. Agirre
31.	2014-08-13	LEITZA	E. Lazkoz
32.	2014-08-21	BILBO	E. Lekue eta A.M. Peñagarikano

33.	2014-08-29	LAUDIO	J. Uria eta O. Bartra
34.	2014-09-15	LEZO	M. Lujanbio eta A. Mendiluze
35.	2014-09-26	GETARIA	B. Gaztelumendi eta A. Arzallus
36.	2014-10-25	ERRETERIA	I. Elortza
37.	2014-11-15	BAIONA	S. Colina
38.	2014-12-20	BILBO	F. Paia

BAT-BATEKO SARIKETAK

39.	2014-04-12	GABIRIA	A. Irastorza eta X. Igoa
40.	2014-05-10	ETXARRI ARANATZ	B. Gaztelumendi
41.	2014-05-10	ETXARRI ARANATZ	A. Illaro eta J. Uria
42.	2014-05-10	ETXARRI ARANATZ	O. Lakuntza eta J. Soto
43.	2014-05-10	AZKOITIA	Mantxi eta I. Ibarra
44.	2014-05-10	AZKOITIA	E. Fernandez eta J. Martin
45.	2014-05-10	AZKOITIA	A. Agirre eta F. Zubia
46.	2014-12-08	ERRETERIA	M. Arregi
47.	2014-12-08	ERRETERIA	N. Ibarzabal

LIBURUAN BERTSORIK DUTEN BERTSOLARIEN AURKIBIDEA

Agirre, A.	162 (BI), 242 (BI)
Agirre, U.	83 (BI), 87 (B), 151 (BI), 153 (B), 154 (BI), 196 (BI)
Agirreazaldegui, A.	113 (BI)
Alberdi, U.	110 (BI), 119 (BI), 142 (BI), 157 (BI), 200 (BI)
Amuriza, M.	107 (BI), 119 (BI), 123 (BI)
Amuriza, X.	61 (P)
Arregi, M.	247 (B)
Arreitunandia, O.	147 (BI)
Arzallus, A.	75 (BI), 78 (P), 92 (BI), 94 (BI), 98 (BI), 163 (BI), 175 (BI), 185 (BI), 212 (BI), 214 (BI)
Barberena, J.	185 (BI)
Barroso, O.	127 (BI)
Bartra, O.	204 (BI)
Castillo, P.	95 (GL)
Colina, S.	68 (BI), 98 (BI), 125 (BI), 127 (BI), 185 (BI), 188 (BI), 212 (BI), 219 (B)
Egaña, A.	75 (BI), 78 (P), 103 (BI), 131 (BI), 132 (BI), 144 (BI), 172 (BI), 175 (BI)
Elexpuru, A.	95 (GL)
Elortza, I.	66 (BI), 78 (P), 149 (BI), 157 (BI), 212 (BI), 217 (B)
Elustondo, N.	98 (BI), 116 (BI)
Enbeita, On.	110 (BI), 121 (B)
Estiballes, A.	129 (B), 188 (BI)
Etxeberria, P.	165 (PE)
Fernandez, E.	138 (BI), 139 (B), 240 (BI)
Garro, I.	138 (BI)
Gaztelumendi, B.	83 (BI), 85 (BI), 123 (BI), 214 (BI), 227 (B)
Ibarra, I.	237 (BI)
Ibarzabal, N.	248 (B)
Igoa, X.	224 (BI)
Illaro, A.	228 (BI)

Irastorza, A.	224 (BI), 226 (BI)
Irazu, J.M.	78 (P), 116 (BI)
Iturriaga, U.	64 (BI), 66 (BI), 154 (BI), 156 (BI), 179 (BI), 181 (BI)
Iturriotz, A.	22 (B)
Karrika, A.	132 (BI)
Labaka, A.	107 (BI), 163 (BI), 245 (BI)
Laburu, A.	72 (BI), 140 (PE)
Lakuntza, O.	231 (BI)
Larrinaga, J.	243 (BI)
Lazkoz, E.	198 (B)
Lekue, E.	167 (BI), 200 (BI), 202 (BI)
Lizaso, S.	103 (BI), 144 (BI), 156 (BI), 194 (BI)
Lujanbio, M.	64 (BI), 70 (BI), 78 (P), 82 (B), 83 (BI), 85 (BI), 88 (BI), 98 (BI), 131 (BI), 172 (BI), 175 (BI), 179 (BI), 181 (BI), 182 (B), 191 (BI), 209 (BI)
Maia, J.	61 (P), 78 (P), 88 (BI), 134 (BI), 175 (BI), 212 (BI)
Maia, X.	137 (B), 138 (B)
Mantxi.	92 (BI), 94 (BI), 237 (BI)
Martin, A.	83 (BI), 98 (BI), 102 (B), 107 (BI), 151 (BI), 157 (BI), 160 (BI), 191 (BI)
Martin, J.	168 (BI), 240 (BI)
Mendiluze, A. ...	83 (BI), 142 (BI), 191 (BI), 196 (BI), 209 (BI)
Murua, I.	103 (BI)
Pagola, E.	113 (BI)
Paia, F.	175 (BI), 220 (B)
Peñagarikano, A.M.	103 (BI), 157 (BI), 200 (BI), 202 (BI)
Perea, O.	233 (BI)
Sarriegi, A.	68 (BI), 70 (BI), 83 (BI)
Soto, J.	72 (BI), 74 (B), 200 (BI), 212 (BI), 231 (BI)
Ugartetxea, B.	235 (BI)
Uranga, J.	235 (BI)
Uria, J.	167 (BI), 175 (BI), 204 (BI), 228 (BI)
Viñaspre, I.	147 (BI), 149 (BI)
Xamoa.	168 (BI)
Zabaleta, E.	98 (BI)

Zelaieta, J.	95 (BI), 185 (BI)
Zubeldia, I.	134 (BI), 162 (BI), 194 (BI)
Zubia, F.	242 (BI)

IKURRAK:

(B): Gaia emanda bakarka egindako saioa.

(BI): Gaia emanda binaka -edo talde handiagoan- egindako saioa.

(P): Puntutan egindako saioa.

(PE): Lehen edo azken puntua emanda egindako saioa.

(H): Gainerako ariketak

(GL): Gai librean egindako saioa.

IZEN ETA IZENGOITIEN DESKRIBAPENA

Zerrenda hau liburuan agertzen diren izen laburdura eta izengoitiei dagokie.

Liburuan	Izen deiturak	Herria
Agirre, A.	Amaia Agirre Arrastoa	Villabona
Agirre, U.	Unai Agirre Goia	Hernani
Agirreazaladegi, A.	Ainhua Agirreazaldegia Rekondo	Elgeta
Alberdi, U.	Uxue Alberdi Estibaritz	Elgoibar
Amuriza, M.	Miren Amuriza Plaza	Berriz
Amuriza, X.	Xabier Amuriza Sarrionandia	Etxano
Arregi, M.	Maidier Agirre Markuleta	Oñati
Arreitunandia, O.	Orlando Arreitunandia	Bastida
Arzallus, A.	Amets Arzallus Antia	Hendaia
Barberena, J.	Jon Barberena Ibarra	Elizondo
Barroso, O.	Odei Barroso Gomila	Urruña
Bartra, O.	Oihana Bartra Arenas	Bilbo
Castillo, P.	Patxi Castillo Graciarena	Bera
Colina, S.	Sustrai Colina Akordarrementeria	Urruña
Egaña, A.	Andoni Egaña Makazaga	Zarautz
Elexpuru, A.	Aitor Elexpuru Egaña	Markina-
Xemein		
Elortza, I.	Igor Elortza Aranoa	Durango
Elustondo, N.	Nerea Elustondo Plazaola	Legazpi
Enbeita, On.	Onintza Enbeita Maguregi	Muxika
Estiballes, A.	Arkaitz Estiballes Ormaetxea	Galdakao
Etxeberria, P.	Patxi Etxeberria Zubiria	Orio
Fernandez, E.	Eneko Fernandez Maritxalar	Lesaka
Garro, I.	Iban Garro Alzuri	Lesaka
Gaztelumendi, B.	Beñat Gaztelumendi Arandia	Añorga
(Donostia)		
Ibarra, I.	Iratxe Ibarra Foruria	Markina-
Xemein		
Ibarzabal, N.	Nerea Ibarzabal Salegi	Markina-
Xemein		

Igoa, X.	Xabier IgoaEriz	Aramaio
Illaro, A.	Arrate Illaro Etxebarria	Getxo
Irastorza, A.	Aitor Irastorza	Zaldibia
Irazu, J.M.	Jexux Mari Irazu Muñoa	Larraul
Iturriaga, U.	Unai Iturriaga Zuaza-Artaza	Durango
Iturriotz, A.	Amaia Iturriotz Etxaniz	Urretxu
Karrika, A.	Aimar Karrika Iribarren	Auritz
Labaka, A.	Ane Labaka Mayoza	Lasarte
Laburu, A.	Agin Laburu Rezola	Astigarraga
Lakuntza, O.	Oier Lakuntza Irigoien	Iruñea
Larrinaga, J.	Jone Larrinaga Dañobeitia	Mungia
Lazkoz, E.	Eneko Lazkoz Martinez	Etxami-Aranatz
Lekue, E.	Etxahun Lekue Etxebarria	Larrabetzu
Lizaso, S.	Sebastian Lizaso Iraola	Azpeitia
Lujanbio, M.	Maialen Lujanbio Zugasti	Hernani
Maia, J.	Jon Maia Soria	Zumaia
Maia, X.	Xabier Maia Etxeberria	Elizondo
Mantxi	Iñigo Mantzizidor Larrañaga	Zarautz
Martin, A.	Alaia Martin Etxebeste	Oiartzun
Martin, J.	Jon Martin Etxebeste	Oiartzun
Mendiluze, A.	Aitor Mendiluze Gonzalez	Andoain
Murua, I.	Iñaki Murua Jauregi	Gabiria
Pagola, E.	Elixabet Pagola Apezetxea	Hernani
Paia, F.	Alfredo Paia Ruiz “Fredí”	Algorta (Getxo)
Peñagarikano, A.M.	Anjel Mari Peñagarikano	Anoeta
Perea, O.	Oihane Perea Perez de Mendiola	Gasteiz
Sarriegi, A.	Aitor Sarriegi Galparsoro	Beasain
Soto, J.	Julio Soto Ezkurdia	Gorriti
Ugartetxea, B.	Beñat Ugartetxea Ostolaza	Mallabia
Uranga, J.	Jokin Uranga Isuskiza	Azpeitia
Uria, J.	Jone Uria Albizuri	Getxo
Viñaspre, I.	Iñaki Viñaspre Simon	Gasteiz
Xamoa	Arkaitz Oiartzabal Agirre	Oiartzun
Zabaleta, E.	Eneritz Zabaleta Apaolaza	Baiona
Zelaieta, J.	Julen Zelaieta Iriarte	Bera
Zubeldia, I.	Iker Zubeldia Katarain	Zegama
Zubia, F.	Felix Zubia Olaskoaga	Zarautz

Bapatean2014



Bapatean2014